

Elkarrizketa
politikoak

IZURTZA



"Konturatu gara azkenaldi luzean gidari askok ez dituztela Izurtzako semaforoak errespetatzen"

Izurtza • Errepideak bitan zatitzen du Izurtza eta bide segurtasuna udalaren kezkarik handienetarikoa bat dela dio Oihane Irastorza alkateak. Bizkaiko Foru Aldundiak semaforoak ipini arren, kotxeek ez dituztela errespetatzen jakinarazi dio udalak Eusko Jaurilaritzako Segurtasun Sailari. • **2-3**

Aurrekaririk bako greba, zaintza eredia berrasmutzen hasteko



Greba • Azaroaren 30ean greba orokor feminista egingo da Euskal Herrian. Mugimendu feminista buru dela, Durangaldeko herritarrek kalera irtengo dute "zaintzarako eskubide unibertsala bermatu", horretarako bitarteko publikoak ezarri eta ohiturak aldatu behar direla aldarrikatzera. • **13**



Zubiaurre familiako kide guztiak, elkarregaz, sorterriaren babesean

Garai • Ricardo Gutierrez Abascal arte kritikariaren gorpuzkiak familiako panteoira sorterriratu dituzte, Mexikotik Garaira. Gutierrez zen Zubiaurretarren panteoira ekartzea falta zen familiako kide bakarra. • **15**



Animalien izenekin jolasean, Hontza Museoko erakusketa

Erakusketa • Mañariko natur-zientzien museoko erakusketa berriaren muina animalien izenekin eginiko palindromoak dira. Evaristo Bustintza Kirikiñogaz eta mendeurren bategaz lotura du. • **12**

58. Durangoko Azokak 265 ekitaldi jasoko ditu



Kultura • 58. Durangoko Azokaren egitaraua aurkeztu dute. Abenduaren 6tik 10era bitartean, Durango kulturaren hiriburu bihurtuko da beste urte batez. Bost egunetan zehar, 265 ekitaldi egingo dituzte, eta ia 1.000 nobedade eskainiko dituzte Landako Gunean. • **26**

eta gabonetako
POTOLUE HEMEN
jausten bada? **BERRIRO**



LOTERIA HIRU 

94 620 04 57
Loteria Hiru - Administrazioa Zb. 1
San Prudenzi 2 - MATIENA (Abadino)



Oihane Irastorza Alzola

Izurtzako alkatea

IZURTZA | 1981

“Izurtzan erronka berdinekin jarraitzen dugu azken hamarkadetan: etxebizitza eta errepidea”

Irastorzak dio trafikoaren abiadura moteltzea eta etxebizitzak eraikitzea direla legegintzaldiko puntu garrantzitsuak. Plaza eraberritzeko proiektua ere martxan ipini gura dute

IZURTZA • JONE GUENETXEA

Oihane Irastorzak Izurtzako udaleko gidaritzaren hartu du aurrean, legegintzaldi bitan zinegotzi izan eta gero. 'Herri txiki, infernu handi' esaera ez du bere egiten. Alderantz, herritarrekin sortu den hartu-emanaren karguaren puntu positiboan zerrendan ipini du.

Zelan alkate karguan?

Aurretik zinegotzi aritu naiz, zortzi urtean, eta ezagutzen nuen udaleko lana. Baina alkate lana beste gauza bat da. Ildo horretatik, eskerrak eman behar dizkiot Lorea Muñoz aurreko alkateari, beti laguntzeko prest egon delako. Lantzean behin udaletxera etortzen da eta asko estimatzen dut bere laguntasuna. Alkate lana

ez da lan erraza, egin beharreko gauza asko dagoelako egunerokotasunean. Baina baditu alde onak ere. Herritarrekin beste erlazio bat sortzen da. Beti oso modu onean hurbiltzen zaizkit. Beraz, erabaki asko hartu beharreko lana den arren, hartu-eman aldetik asko ematen du.

Legegintzaldira begira, zeintzuk dira erronkak?

Izurtzan erronka berdinekin jarraitzen dugu azken hamarkadetan, batez ere gai bitan: etxebizitza eta errepidea. Urtero-urtero modu transbertsalean lantzen ditugun gaiak dira. Ez ditugu baztertu, baina ezin gara horretan bakarrik zentratu. Horregaitik, legegintzaldi honetan plazan dugun espazioari etekin handiagoa atera

gura diogu. Proiektu hau puntu garrantzitsua izango da datozen lau urteetarako. Santo Tomas parkeari dagokionez, jende askok erabiltzen du eta batzuetan arazoak izan ditugu hondakinekin. Parke hori eraberritzea gura genuke. Bestalde, aparkalekuan ibilgailu elektrikoentzako kargagailuak ipini gura ditugu.

Aurrekontuak lantzen zabilzate. Zein aurreikuspen duzue 2024rako?

Oraintxe gabiltza aurrekontuak lantzen. Udal gobernu legez prestatu dugu proposamena. EAJko zinegotziekin berba egin dugu dagoeneko. Herritarrekin ere batzartu gara euren ideiak, proposamenak eta kezak jasotzeko. Abendu erdirako lehenengo onespina plenotik pasatzea gura genuke. 157.000 euro inguru ditugu inbertsioetarako. **Zein izango da inbertsiorik handiena?**

Tabernako sukaldea berritzea obra handia izango da eta 2024rako aurreikusi dugu. Etxe bateko sukaldea zen eta orain profesionalizatu egingo dugu. Gasen irteera eta horrelakoak egokitu behar dira eta horrek bere kostua du. Bestalde, 2024an plaza eraberritzeko proiektua zehaztu gura dugu, 2025ean exekuzioagaz hasteko.

Tabernak zein garrantzia du Izurtzan?

Bai taberna eta baita medikuarena ere Izurtzako herritarrek elkarrekin diren gune bi dira. Tabernaren kasuan, zarratuta egon denean asko igarri da. Herrian bizia falta zen, eta tabernak horixe egiten du,

herriari eta plazari bizia eman.

Mugikortasuna gai garrantzitsua da Izurtzan. Aldundiak semaforoak ipini zituen. Trafikoaren abiadura arazo izaten jarraitzen du?

Arazoa da errepidea herriaren erdi-erditik pasatzen dela. Irten-bidea saihesbide bat egitea izango litzateke. Urteetan eskatu dugu, baina Bizkaiko Aldundiak ez du begi onez ikusten. Udalak, urteetan, proposamen bat baino gehiago egin du eta Aldundiaren erantzuna semaforoaren bitartez abiadura kontrolatzea izan zen. Ez da guk eskatu genuen aukera, inondik inora. Guk hobeto irizten diogu radarrak ipintzeari herriaren sarreran eta irteeran. Mañaria ere hartu ahalko lukete, hori Mañariko Udalaren gaia den arren. Aldundiak ez ditu radarrak aurreikusi eta semafoekin geratu gara.

Semafoekin konpondu da trafikoaren abiadura arazoa?

Momenturen batean igartzen da zeozer. Baina konturatu gara azken denboraldi luze batean gidari askok ez dituela semaforoak errespetatzen. Terrazan jesartzea besterik ez dago hori ikusteko. Batez ere, lehenengo semaforoak ez dituzte errespetatzen, Durangotik etorri zein Mañaritik etorri. Eta goizeko lehenengo orduan Gasteizera doazen ibilgailuekin, zer esanik ez. Horregaitik, udalak idatzi bat prestatu du eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera bidali dugu gaiaren berri izan dezaten. Dugun arazoa jakin dezaten da gure

helburua, kontrol hori eramatea euren ardura delako.

Azken urteotan ez da ezer eraiki Izurtzan. Arlo horretan zein helburu duzue?

Esan dudan moduan, etxebizitzaren erronka legegintzaldi honetako handienetakoa da. Geroago eta biztanle gutxiago gara, geroago eta nagusiagoa. Etxebizitzaren gaia urgentzia bat da, beti. Lehenago, lehiaketa publiko bat egin zen proiektua zehazteko. Proiektu batek irabazi zuen eta proiektu horren barruan etxebizitza horiek eraikitzea irten zen lehiaketara. Inor ere ez zen aurkeztu eta udalak proiektu hori egungo beharizatara egokitu zuen. Udalak behin baino gehiagotan egin behar izan du hori. Hori eginda, udala zuzenean promotoreekin kontaktuan ipini zen zer egin zitekeen jakiteko. Herri txikia da eta hamabi etxebizitza dira, tasaturikoak. Etekin gutxi ateratzen diete, eta promotoreen

Konturatu gara azken denboraldi luze batean gidari askok ez dituztela semaforoak errespetatzen

aldetik ez dugu baiezkorik izan. Bestalde, kooperatiba bat sortzeko proiektu interesgarri bat etorri zitzaigun orain urte bi inguru. Hartu-eman handia izan genuen eurekin, lursail publiko bat izanda baldintza batzuen barruan eraiki behar delako. Oraingoz hortxe geratu da, eurekin ikusteko ea bideragarria den. Oraingoz puntu horretan gaude. Aurrekontuak behin lotuta, gai honegaz lanean jarraituko dugu.

Non dago etxebizitzak eraikitzeko lursail hori?

Frontoiaren atzeko aldean dagoen lursail bat da. Eredu hori udal-terreno da. 12 etxebizitza eraiki gura ditugu eta lonja bat udalarentzat izango litzateke, bere beharizatara.

Badago eskaririk hamabi etxebizitza betetzeko?

Orain dela urte batzuk zerrenda bat egin zen. Kontua da harrezkero pertsona askok euren bizi proiektua egin dutela, ezin zirelako zain egon. Hala ere, ezagutzen dut jendea hemengo dena edo Durangon bizi dena gustura etorriko litzatekeena Izurtzara bizi izatera. Ez dut uste arazorik izango genukeenik, ez guk ez promotoreek, jendea ekartzeko. Herri txikia da, Durango bertan daukazu, beste erritmo bat da. Ez daukagu zerbitzurik, baina Durango bertan dago. Beraz, alde horretatik jendea gustura etorriko litzateke.

Mediku zerbitzurik barik egon zarete denbora batean. Gai hori zertan da?



loratzen du egoera. Osakidetzaren erantzuna beti izaten da pertsonal falta dagoela. Ez diote inoiz konponbiderik emango? Herri txikiok irteten gara beti kaltetuen. Oraingoan ematen du aste honetatik aurrera osasun zerbitzua ohiko ordutegian ematen hasiko direla.

Kontsultategiak zein ordutegi izaten du?

Familia medikua eta erizaina egunero egon beharko lirateke 12:30etik 13:30era. Ordubete edo ordu eta erdi izaten da. Pandemia ostean kontsulta presentzialak beharrezkoak direla esan genuen, eta astean egun batzuetan etortzen hasi ziren. Geroago, egunero etortzen hasi ziren. Baina oporrak heltzen direnean beti izaten dira arazoak, eta medikurik barik egoten gara. Baina hori Osakidetzako anbulatorio guztietan gertatzen dela uste dut. Pertsona nagusientzat, batez ere, etxean medikua izatea garrantzitsua da. Medikuak jarraikortasun bat badu, konfiantza ematen du, eta euskalduna bada, zer esanik ez. Medikurik barik egotea gogorra da nagusientzat, eta hori asko igarri dugu; azken batean, eurak izan dira mobilizatu direnak, nagusiak. Kexak aurkeztu dituzte anbulatorioan, bai Izurtzan eta baita Mañarian ere.

Arbizoleako industrialdeko epaiaren ebazpena zein egoeratan dago?

Bere garaian, Arbizolean urbanizazio lan batzuk egin ziren eta enpresa batek ordaindu zituen. Epai bat heldu zitzaigun, eta hor esaten zen beste enpresek euren gain hartu behar zituela kostu horiek. Udala interesatu lez sartu zen auzian, uste genuelako beste enpresei eskatzen zitzaiena ez zela bidezkoa. Hainbat errekurtsio egon zen, eta azken epaiak arrazoia ematen dio enpresa honi, urbanizazioko diru hori jaso behar duela ebaztuta. Udala erantzule egiten du enpresa bakoitzak ordaindu beharko lukeenaren kalkulu bat egiteko eta diru hori jasotzeko. Beraz, udalak azken urteotan birpartzelatze proiektu bat egin du bakoitzak zenbat ordaindu beharko lukeen jakiteko, eta orain dirua jasotzeko azken fasean gaude. Dirua jasotzen duenean, udalak epaia irabazi zuen enpresari emango dio.

Zeintzuk dira herri txikien zailtasunak?

Aurrekontuaren ehuneko handi bat egunerokotasuneko gastuetara joaten da, eta oso diru gutxi geratez da inbertsioetarako. Izurtzak soberakina dauka eta tiratu dezakegu, baina horretarako prozedurak asko mugatzen gaitu.

Izurtza oso sakabanatuta dagoen herria da. Errepidea, auzoak...

Herri txikia izateaz gainera, Izur-

tzak oso faktore bereziak ditu. Alde batetik bidea, eta bestetik auzoak. Baina jendea nagusia da. Horrek zaildu egiten du herriko bizitza egitea. Ohituta gaude auzoan edo baserrian ingurukoekin egoten. Jende asko ez da herri-gunera ezertarako ere bajatzen. Badugu zentro bat, denentzako espazio bat, baina kostatu egiten zaigu bertara joatea, eta hori ere landu beharreko gauza bat da. Horregaitik, plazaren proiektua ere arlo horretatik bideratu gura dugu; ez bakarrik plazak itxura ona izan dezan. Izurtzako plaza, hormigoizko plaza handi bat izan beharrean, erakargarriagoa izatea da gure asmoa, herriko bizitza bultzatzeko.

Erabilera anitzeko espazio bat sortu zenuten Izurtzan. Ateratzen diozue etekinik?

Herriari bizitasuna emateko sortu genuen, pandemia sasoi aurrean. 2020an itxita egon zen eta 2021ean zabalik egon zen, baina muga handiekin. 2022an eta 2023an liburutegitik antzerkiak antolatzen hasi gara, eta beste jarduera batzuk egiten: UEMAtik datozen tailer batzuk, bilerak, gimnasia klaseak, batzarrak, eta ludoteka ere bai. Egiten dira gauzak, baina gehiago egin daiteke eta hori udaletik bultzatu gura dugu.

Guk ez dugu eskatzen beste herriek ez duten zerbitzurik. Denboraldi luze bat daramagu arazoekin, ez da gai berria guretzat. Baina azken hileetan herritarrek "honaino!" esan dute. Mañarian eta Izurtzan denbora luzea daramagu esaten ezin dugula horrela jarrai-

tu. Udako oporretatik medikurik barik gaude. Ez da fundamentua telefonoz deitu eta erizainagaz berba egitea. Izurtzan eta Mañarian, aplikazioan sartzen bagara, erizainagaz hartu behar da txanda. Ezin da zuzenean medikuagaz hartu. Erizainak deitzen du eta berak ba-

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta



Egun euritsu bat lurreta eta Durangoren mugan.

Zirimiria, desagertzeaz?

Eguraldi aldaketa kezka iturri da herritarren artean. Alarma horiak, laranja, bero-boladak edo euri jasak geroago eta aruntago diren garaiotan, klima aldaketari begira ipini gara

KLIMA ALDAKETA • ANBOTO

Maiatzeko euria, urte guztiko ogia; Urtarrila urik barik, urtea ogi barik; Siku urte, eskas urte; Amorebietako eurie, egun guztiko eurie. Gotzon Garatek baserririk baserri batu zituen atsoztizetara jotzea baino ez dago eguraldiak bere *tempoa* eta ohiturak dituela, eta horiek menderik mende mantendu direla ondorioztatzeko. Garatek baturiko esaera zaharrek, behintzat, horixe erakusten dute. Eta halantxik ailegatu ziren mende honen atarira, 2004an kaleraturiko *Atsotitzak* argitalpenean. Baina gaurkotasanak eta etorkizunak bestelako zerumuga bat marraztu dute. Zalantzak ekarri dituzte eguraldiaren joko zelaira, eta honako galdera hau egin: adierazle meteorologikoek klima aldatzen dabilela dioten garaiotan, eguraldiari loturiko atsotitz hauek iraungitze data izango dute? Ala, modu terrenalagoan esanda, orain arte ezaguturiko eguraldi ohiturak galbidean daude

begien aurrean zabaltzen dabilen eszenatoki klimatiko berrian?

Datuak adierazle

ANBOTOK eta Tokikom federazioko beste hainbat herri komunikabidek gai horri heldu diote. Klima aldaketara eraman dugu begirada. Hona adierazle batzuk: joan zen uda inoizko beroena izan zen. Europar Batasuneko Aldaketa Klimatikoa-ren Copernicus Zerbitzuaren arabera, ekainetik abuztuaren amaiera bitarteko tenperaturak 1,5 gradu altuagoak ziren industrializazio aurreko aldiagaz alderatuta. Hau da, uda honetako tenperaturak 1850-1900. urteetako batez bestekoa baino 1,5 altuagoak izan dira. Oiz mendia bera ere izan zen horren lekuko. Abuztuaren 23an, mendi tontorrean errekor berri bat ezarri zen, 34,1 graduko tenperatura maximo absolutua erregistratuta. Biharamunean, abuztuaren 24an, Elorriok urte osoko tenperatura

minimorik altuena erregistratu zen: 23 gradu. Honek guzti honek abuztuaren 18tik 24ra bitartean jasandako bero boladan du jatorria. Tenperatura altuek markaturiko bero bolada izan genuen. Zornotzan, adibidez, termometroek goia jo zuten, 38,4 graduko tenperatura

maximoak erregistratuta. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako tenperatura maximorik altuena ere orduantxe erregistratu zen, Bizkaiko Sodupe-Kadagua estazio meteorologikoan. Abuztuaren 23an, 45,6 graduko tenperatura maximoa erregistratu zen han.

Ura bai, baina jarraikortasun barik

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Ingurumen Sailak klima aldaketari buruzko aurreikuspenak ditu etorkizunera begira. Ingurumenari loturiko arduradunek diotenez, "espero izatekoa da etorkizunean prezipitazio gertakari gutxiago izatea, baina euri uren intentsitatea handiagoa izatea eta segidan lehorraldi luzeak etortzea". Eskualdeko baserritar ekoizleek ere interpretazio hori egiten dute. Berrizko Roman Bengoa ekoizleak, adibidez, zirimiria, ortuak beharrezkoa duen euri langar hori, galtzen gabiltzan ustea dauka. Bengoak azken hamar urteotatik hona igarri du zirimiri galera hori. Eta interpretazio hori bat dator Ingurumen Sailak prezipitazioari dagokionez eginiko joera aldaketaren aurreikuspenagaz. Datozen urteei begira "murrizte" bat aurreikusten du "1 mm-ko edo gehiagoko prezipitazio egunei dagokienez, eta 10 mm-ko eta 20 mm-ko baino gehiagoko egunen kopuruei dagokienez. Aldiz, gora egingo luke euri egun bakoitzak batez beste ekarrikiko ur kantitateak, euri egun batean pilaturiko gehienezko prezipitazioak, eta ondoz ondoko egun lehorren kopu-

ruak". Joera horri loturiko adierazleeriko batzuk sumatzen hasita gaude jadanik. Ondoko orrialdeko beheko grafikoan ikusten denez, prezipitazio metatuak udazken eta negu bueltako hiletan pilatzen dira. Tarte sikuagoak ageri dituzte erdialdeko hileek.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak "murrizte" bat ikusten du prezipitazio xumeko egunetan

Abuztuaren termometroek goia jo zuten. Oiz mendian 34,1 erregistratu ziren abuztuaren 23an

Honako erreportaje honetan, Aiolako, Elorrioko, Zornotzako eta Urkiolako estazio meteorologikoetatik harturiko datuak batu ditugu batetik, eta elkarrizketa bi jaso ditugu bestetik. Euskal Telebistako June Ansoleaga *Eguraldiaren aurkezleari* eta Zuriñe Zulaika meteorologoari eginikoa da bat, eta Roman Bengoa baserritar ekoizleari eginikoa bestea. Esaera zein atsotitz berrien aurrean egon gaitzke, aro desberdin baten atari.



Aiolako urtegia Zaldibar, Elorri eta Elgeta (Gipuzkoa) arteko lurretan dago.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko azaroaren 24a
22. urtea - 958. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA


Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Tenperaturen gorakada eta prezipitazioen ezegonkortasuna agerian Durangaldean


Batez besteko temperatura Elorrion ■ 2001 ■ 2022



Batez besteko temperatura Zornotzan ■ 2001 ■ 2022




Batez besteko prezipitazioa Aixolan 2022an (l/m2)
Hilerik hile




Iturria: Euskalmet

Batez besteko prezipitazioa Elorrion 2022an (l/m2)
Hilerik hile



Iturria: Euskalmet

Prezipitazio metatua Urkiolan, hileka (l / m2)



Iturria: Euskalmet

DATUAK

Geroago eta hile beroagoak

Elorriko eta Zornotzako estazio meteorologikoetako grafiko hauetan ikusten da tenperaturak orokorrean gora egin duela 2001etik 2022rako tartean. Irudiotan ikusten da 2022ko hilerik gehienetan tenperatura 2001eko hiletakoaren gainetik dagoela. Nabarmentzekoa da, gainera, 2001eko abenduan Elorriko batez besteko tenperatura: 4,3 gradukoa. 2022an, 12,3koa izan zen.

Urtegiak, euri gutxiagoko hileen lekuko

Ezkerreko irudietan, Aixolako urtegiaren eta Elorrión iaz botariko prezipitazio kopurua jasotzen da, hilerik hile. Lerro gorriak 2001etik 2022rako hiletan botarikoaren batez bestekoa jasotzen du. Bata eta bestea alderatuta, argi ikusten da 2022a urte sikua izan zela orokorrean. Hiru hilabetetako euriak daude batezbestekoaren gainetik; bi parean eta zazpi batezbestekotik behera.

Prezipitazioa geroago eta kontzentratuago udazkenen

Ezkerreko irudi honetan hilerik hile pilaturiko prezipitazio kopurua ikusten da, 2001etik 2022ra artekoa. Bertan antzeman daitekeenez, ur kantitatea udazken eta negu aldeko hiletan dabil pilatzen. Tarteko hiletan, erdigunean, ur kantitatea txikiagoa da, eta joera sikua goa igartzen da urteko hilerik gehienetan.

Erabili meloia Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin





“Udako egoera gehiago luzatzen da; orain uda ez da irailaren 21ean amaitzen”

Eguraldia saioko June Ansoleaga kazetariak eta Zuriñe Zulaika meteorologoak klimaren bilakaera izan dute berbagai

DURANGALDEA • HIRUKA

Zuriñe Zulaika EITBko Eguraldia saioko meteorologoa eta zuzendaria da, eta June Ansoleaga bertako kazetaria. Klimaren bilakaera eta honen aldaketa izan dituzte berbagai.

2022a eta 2023a denon ahotan egon dira batez ere euri faltagaitik eta beroagaitik. Horrela da?

June Ansoleaga: Horrela da, bai. Azken urteak oso gorabeheratsuak izaten ari dira, bai euri eskasirengaitik, batez ere Euskal Herriko barnealdean, hegoaldean, eta baita bestelako muturreko fenomenoak izan ditugulako ere. Urtaroak aldatzen ari direla esan genezake, zelanbait. Egoerarik ohikoena aldatzen ari dira. Ez dugu negu gordin-gordinik edo udaberri euritsurik. Azken urteetako lehenengo hileak nahiko epelak izaten ari dira, eta geroago eta uda luzeagoak dauzkagu, ten-

peratura beroagoak. Azken urteetan egoera hori aldatzen joan da.

Kezkatzeko moduan gaude?

J. A.: Egoera kezkarria dela argi dago, eta hori ez da Eguraldian esaten dugun gauza bat, mundu mailan esaten den gauza bat da. Munduko meteorologia agentziak adierazten du gauzak aldatzen ez badira eta kutsadura maila, esate baterako, jaisten ez bada, datozen urteak geroago eta beroagoak izango direla eta muturreko egoera gehiago ekarriko dituela. Eta, egia esan, Euskal Herrian hasi gara aldaketa horiek igartzen; beraz, kezka mahai gainean dugu.

Muturreko fenomeno bat oraintsu izan dugun Ciaran da. Nondik datoz ekaitz hauek?

Zuriñe Zulaika: Depresiogune bat da, eta horrek haize ufada oso gogorak, itsaso oso zakarra eta euria ekarri zizkigun. Baita lehenengo elurtea ere. Ziklogenesi leherkorra

izan zen, oso denbora gutxian sortzen den depresiogunea.

Geroago eta ohikoagoak izango dira muturreko fenomenoak?

Z.Z.: Muturreko fenomenoak, uholdeak edo ekaitz handiak betidanik izan ditugu, baina tenperaturaren igoeragaz batera atmosferan izango dugun hezetasuna ere handitu egingo da eta horrek muturreko egoera gehiago ekarriko ditu.

Beharbada gure pertzepzioa izango da, baina ematen du lehen euri egun gehiago egoten zela orain baino. Adibidez, lehen, zirimiria egiten zuen askotan. Orain, oster, ez dago horrelako euri egunik, eta dagoenean ekaitzak daude.

J.A.: Guk, esaterako, Nafarroako kasua aztertu dugu, eta ikusi dugu geroago eta euri gutxiago egiten duela; batez ere, neguan. Eta handitu egin dela, oster, muturreko egoeren egun kopurua. Hau da, egun askotan egiten duela euri asko,

ekaitzak direlako esate baterako. Eta, bai, kalera goazenean igartzen da lehenengo zirimiri amaiezin hori, egunero-egunero izaten genuena, geroago eta gutxiago dugula.

Hor daude lehorreak ere...

J.A.: Bai, eta batez ere Arabako hegoaldean eta Nafarroako erdialde-hegoaldean nabari da, Arabako Errioxa inguruan eta Nafarroako Erriberan.

Z.Z.: Tenperaturari dagokionez, udan, adibidez, bero boladarik handienak hor izan ditugu. Adibidez, lehen Nafarroan oso egun gutxitan heltzen ziren 40 gradura, eta hemendik aurrera geroago eta ugariagoak izango dira 40 graduko egunak.

Desertifikazioa heldu da?

Z.Z.: Oraindik urrun gaude Iberiar penintsulako barnealdeko lekuekin alderatuta, baina egia da datozen urteetan egoera larritu egingo dela.

Datuak ikusita, ematen du hileak aldatu egin direla, lekuz aldatuta daudela. Urtaroek egonkortasuna galdu dute?

J.A.: Esan daiteke Euskal Herrian hasierako urtaroak, negua eta udaberria, geroago eta "suabeagoak" izaten ari direla. Ez dagoela negu gorri gordinik. Egun solteetan bai, hotz handia izaten dugu, baina ez oso bolada luzeetan. Eta gero, batez ere, ikusi dena da udako egoera gehiago luzatzen dela. Orain uda ez da irailaren 21ean amaitzen. Urria ere oso beroa izaten dugu, eta horren adibide aurtengoa da. Errekorrak hautsi dira aurtengo urrian. Beraz, egia da zelanbait urtaroak aldatzen ari direla. Batez ere, geroago eta epel-beroagoak ari dira izaten.

Euskal Herrian hasierako urtaroak, negua eta udaberria, geroago eta "suabeagoak" izaten ari dira; ez dago negu gorri gordinik

Z.Z.: Oraintsu, esaterako, Copernicusen txostena irten da, eta bertan aipatu dute aurtengoa urririk beroena izan dela, ohi baino 0,85 gradu gorago kokatu dela termometroa munduan, eta 1,3 gradu gorago Europan.

Azkenaldian, suteak ere protagonista izaten ari dira.

J.A.: Bai. Nafarroan, adibidez, 2022an, San Martin Unx eta Uxue inguruetan sute ikaragarriak piztu ziren; egun berean bost baso-sute, hain justu. Ez da ohikoa, baina badirudi geroago eta suntsigarriagoak izango direla.

Eta, zer dela eta?

J.A.: Denak du lotura: zenbat eta tenperatura altuagoak izan, orduan eta aukera gehiago baso-suteak pizteko. Hala ere, horrek ez du esan gura urtero edo uda guztietan horrelako egoerak izango ditugunik.

Egoera irauli daiteke?

Z.Z.: Tenperaturaren igoera, hirietako kutsadura eta biodibertsitatearen galera kezkatu beharreko gaiak dira. Gizakien isurien murrizketa handia izan behar da.

J.A.: Argi dago dagoeneko ezin dugula atzera egin, baina etorkizunera begira neurriak hartu ditzakegu. Esaterako, gizakiak sortzen duen kutsadura murriztu behar dugu, biodibertsitatea zaindu behar dugu, gure hiriak birpentsatu behar ditugu eta negutegi efektuko gasak murriztu behar ditugu. Gobernuak hartu behar dituzten erabakiak dira, baina guk geuk ere aldaketa txiki-handiak egin ditzakegu.



**Roman Bengoa
Larrañaga**

Baserritarra

ABADIÑO | 1959

“Oso zirimiria gutxi egiten du. Lehen, neguan, txiri-txiri botatzen zuen aspertu arte”

Durungaldeko baserritarrak aspalditik dabilta igartzen klima aldaketaren eragina. Roman Bengoak dioenez, udaberria eta udazkena desagertu egin dira

BERRIZ • EKAITZ HERRERA

Azken urteotan bizi dugun aldaketa klimatikoak bete-betean eragin du baserrian. Roman Bengoa baserritarrak 30 urte daramatza nekazaritza eskologikoa lantzen, eta azken urteotan zirimiria falta igarri du.

Gaur egun baserritik bizi zara, baina ez beti.

Datorren urtean 30 urte egingo ditugu hemen Txaro Zarandona bikoitekideak eta biok. Horren aurretik, 15-16 urte tailerlean egin nituen.

Tailerragaz kokoteraino nengoela eta, bizimodua aldatzea pentsatu nuen.

Klima aldaketa igarri duzue?

Igarri dugu aldaketa hori, baina, batez ere, ortuak sumatu du aldaketa. Hona etorri ginenean, neguan urte askoan bidetik ezin izaten zen irten, elurragaz tapatuta egoten zelako. Gero, garbitzen hasi ziren. Elurra polito botatzen zuen eta egun askora urtzen zen. Azken 15 urtean joera hori gutxitzen joan da. Orain lantzean behin botatzen du

halako elurteren bat, baina txikiak izaten dira, egun batekoak asko jota. Ortuaren ere igartzen da. Udan hiru hilabete eurarik ganoraz ez egitea pentsaezina zen. Lehen, ez genuen ortua ureztatzen. Orain ekaitz gogorrak egiten ditu eta hori kalterako da. Eskas busten du horrek. Udan oso arraroa zen hiru-lau aste ezer ez botatzea. Oso uda arraroa izan da. Bestalde, konturatu gara paraje honetan, Anbototik Oizera, hortxe parean, euri gutxiago egiten duela; Durango, Abadiño, Atxondo, Berriz inguru horretan. Zornotzarantza bazoaz zaparrada botatzen du, eta hona heltzerakoan gutxiago. Ez dakit Marik zerikusirik izango ote duen (barrez).

Aldaketa hori joera bat izan daiteke?

Urte batzuk dira hori gertatzen dena, eta negutik udara kolpean pasatzen gara orain, baita alderantziz ere. Udaberria eta udazkena desagertu egin dira. Ez dago tartarik tenperaturek apurka-apurka gora edo behera egiteko. Aurtengoa nahiko urte arraroa izan da. Apirilean egun argiak izan ditugu, abuztuan baino gehiago. Abuztuan ez du eguraldi txarra egin, baina lainope egon gara egun askotan. Nahiko urte arraroa izan da. Baina euria gutxiago. Kopuru aldetik, adituek datu zehatzak izango dituzte,

baina orturako behintzat, euri gutxi egin du. Urtegiak beteko dira, baina horrek ez du orturako balio. Tenperatura altuekin landareek asko sufritzen dute. Laz ia ez genuen bainarik batu, beroaren beroagaz lorea jausi egin zitzaion eta. Ureztatzeak ez du balio kasu horretan. Bere tenperatura behar du.

Noiz igarri zenuen aldaketa?

Urte pilo da aldaketa hasi zela. Hamar bat urte, gehiago ez badira.

Zer aldatu da?

Ez dut egun puntualik gogoan, baina, esate baterako, oso zirimiria gutxi egiten du. Lehen, neguan, txiri-txiri botatzen zuen aspertu arte.

Zirimiria galtzen gabilta?

Baietz esango nuke. Hemengo eguraldia horrelakoa zen, eta hori galdu egin da. Egundak batzuetan egiten du apur bat, baina azken urteetan ez dakit gogoratzen dudana egun oso bat zirimiria egiten.

“Tenperatura altuekin landareek asko sufritzen dute. Laz ia ez genuen bainarik batu, beroaren beroagaz lorea jausi”

Ortuak zirimiria behar du?

Zeozter gehitxoago. Zirimiria lanbro ganorabako hori ere ez. Baserritarrak zaparrada normalak behar ditu. Kontua da, neguan, behar dugun baino gehiago egiten duela, beti gabilta berdina esaten: "Gutxitxoago egingo balu, eta udan gehitxoago bota". Baina hori ezinezkoa denez...

Joera horrek zertan eragin du zuen lanean?

Orain ureztapena beharrezkoa da eta derrigor ipini behar da sistemaren bat. Lehen ere bero egiten zuen abuztuan, baina landarea egonkortuta zegoen lurrean, sustraia ondo botata, eta kapaz zan apur bat aguantatzeko. Eta ura botaz gero, hobeto. Ez zen sikatzen, egunen batean zaparradaren bat botatzen zuen eta. Gaur egun, maiatzean landare bat ipini eta ureztatu ezik, akabo! Ez du aurrera egingo. Sikatu egingo da. Maiatzetik aurrera izaten dira ekaitzak uda partean, baina irail edo urrira arte ez du ia euririk egiten ganoraz.

Ekaitzen batek uzta kaltetu dizue?

Alde horretatik, azken urteetan nahiko zorte handia izan dugu. Orain hamar bat urte, San Antonio egunean, harria bota zuen. Ordutik hona, izan dugu kalte txikiren bat edo beste, ekaitzak lurra eramandigula eta horrelakoren bat. Kontu larriagoak gertatu zaizkie lagun batzuei. Euren ortu eta negutegiak urak goitik behera hartuta erreka bazterretan...

Zuen kasuan, klima lan-tresna bat da. Ematen diogu gai honi duen garrantzia?

Tailerrean behar egiten nuenean, abuztuan oporrak izanda ernegatu egiten nuen zirimiria egiten zuelako. Orain, osteria, euria egiten badu, "zelako zaparradaren elegantea!", egiten dut neure artean.

Konbentzituta zaude klima aldaketaren inguruan gauzak aldatu beharko liratekeela?

Ez dut uste jendeak arrisku hori ikusten duenik. Eta administrazioaren aldetik berba asko bai, baina zer egiten dabilta? Energia nuklearra eta gasa energia berdea dira bat-batean. Horrela ez da posible. Edo geuk egiten dugu edo bestela nik ez daukat besteengan konfiantza handirik. Baina gauza hauek ez daude gure eskura.

Momentu honetan gazte bat egon daiteke zu orain 30 urte zeunden egoeran. Zer esango zenioke?

Animatu dadila. Baina astiro-astiro hasi dadila. Ni hasi nintzenean errazagoa zen, plazez funtzionatu egiten zuten. Ez zegoen merkataritza-gune handirik. Durangon denda asko zegoen jeneroa saltzera eramateko. Orain askoz ere gehiago kostatzen da saltzea. Hemendik bizi daiteke, baina ez utzi dena alde batera. Kontuan izan urte edo urte eta erdian ez dagoela diru sarrerarik. Baina honetatik bizi daiteke, ganorazko lur nahikoa edukiz gero. Administrazioak sarritan esaten du lehen sektorea estrategikoa dela. Eskerrak estrategikoa dela, bestela akabo! Askoz ere errazago ipintzen dituzte ortu komunitarioak, eta oso ondo daude. Baina ahalegin apur bat egin daiteke lurra lortzeko eta batzeko. Euren dituzte giltz guztiak horrelako kontuak mugitzeko.

Hazien eta barietateen gaia ere mahai gainean dago.

Hiru-lau enpresek hazien barietateak gordetzen dituzte. Ortuaren erabiltzen diren produktuen barietateen %80 galdu egin da. Horiei ez zaie interesatzen bertako barietateak sortzea. Bertakoa ez dakit zeozter geratzen den; baserrietan gordetzen dena. Hazi horiek norberak gordetzen ditu eta ondo egokituta daude norberaren lursailera. Toki bakoitzak bere klima propioa du. Haziak horretara egokituta ez badaude, geroago eta txarrago goaz. Alde batetik aldaketa klimatikoa dago, eta beste alde batetik ez dugu hazirik eta barietaterik bertara egokituta. Hori arazo larria izango da hemendik aurrera. Barietate horiek segun eta norako eta zein klimatarako sortu, orduan baliteke beste leku batzuetarako balio ez izatea. Produktio guztia leku jakin batzuetan kontzentratzen jarraituko dugu. Lau lagun eskuetan geratuko da mundu guztiaren elikadura.

Durango Udalak "egungo testuinguruari egokituriko aurrekontu zorrotza" proposatu du

Udalak ia 43 milioi euroko aurrekontua izango du 2024rako. Aurtengoa baino %2,57 handiagoa. Kontuen proposamena "zorrotza" dela esan du Elkoroiribe alkateak, "inbertsio gutxiak eta benetako beharrezko erantzuten dietenak"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jessica Ruiz alkateordeak 2024ko udal aurrekontuak aurkeztu dituzte asteon. Oraingoz proposamenak dira, behin betiko aurrekontuak osoko bilkuran onartu beharko dituzte eta. Edozelan ere, Elkoroiribek argi berba egin du: "Proposaturikoak aurrekontu zorrotzak dira, inbertsio gutxiak. Benetako premiei erantzun eta pertsonak erdigunean ipintzen dituztenak". Alkateak gaineratu du "ahalegin handia" egin behar izan dutela "bizimodua garestitzen dabilen eta ziurgabetasun ekonomiko nagusi den testuinguruan". Edozelan ere, Durango Udalak aurtengoa baino aurrekontu zabalagoa izango du datorren urtean, %2,57 handiagoa.

Ruiz alkateordeak azaldu duenez, aurrekontu berriek ongizatea ipiniko dute erdigunean. Nagusien Foroa sortu eta epe luzera begira, Adinekoentzako zentro berri bat sortuko dutela jakinarazi du. Egun-

go zentroari dagokionez, harakoden diru partida igo dute (%2,23). Eta Berdintasunaren atalean, Andragunerako diru kopurua %9,65 igo dute, bere 15. urteurrenagaz bat eginda. Otamotzenako auzo etxerako 39.000 euro ipiniko di-

tuzte, eta Udal Euskaltegiko zein kultura arloko aurrekontuak %8 igo dituzte.

Garatu gura dituzten beste arlo batzuk hauek dira: PERIarentzako proiektu berri bat idaztea, Antso Estegiz kalea urbanizatzea eta

Tabirako aldagelak berriztea. Kapitaneen proiektua birplanteatzen dabilzala ere jakinarazi du Elkoroiribek. "Auzotarrek batera espazio zabalago eta irisgarriago bat sortzeko aukera lantzen gabiltza", azaldu du.



Jessica Ruiz alkateordeak eta Mireia Elkoroiribe alkateak martitzenean aurkeztu zuten aurrekontu proposamena.

Durango Udalak 49.700 euroko diru poltsa ipini du ekintzaitzarako

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hutsik dauden lokal komertzialen erabilera sustatzeko eta merkataritza indartzeko asmoz, Durango Udalak ekintzaitza sarituko du horretarako diru laguntzak emanda. Guztira, 49.700 euroko diru poltsa prestatu dute egitasmo horretarako. Mota bitako laguntzak izango dira. Batzuk jardura ekonomiko berriei laguntzeko izango dira, eta besteak enpresa-transmisiorako.

4.000 eurora artekoak

Jardura ekonomiko berri bat hasi edo jardura ekonomiko kalean bertan lekualdatzen duten negozioek 4.000 eurora arteko laguntzak jasoko dituzte gehienez. Enpresa-transmisioa egiten denerako, udalak 1.500 euroko gehienezko zenbatekoa emango du. Eskabideak Herriarrentzako Arreta Zentroan egin behar dira. Durango Udalaren web atarian kontsultatu daitezke oinarri guztiak.



JAED osatzen duten kideetarikozko talde bat, joan zen zapatuko irekieran.

JAEDek 60. urteurrena ospatuz zabaldu du stand solidarioa

70.000 errifa kaleratu dituzte, normalean baino 5.000 gehiago. Inoiz baino gehiago erostera deitu dute

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Joan zen zapatuan JAEDen stand solidarioa inauguratu zuten Durango Andra Mariko elizpean. Urtero legez, 1,50 euroan eskuratu daitezke txartel bakoitza. Aurtengo aldia nobedade batzuekin dator. Esaterako, 70.000 errifa ipini dituzte salgai, orain arte baino 5.000

gehiago. Inoiz baino txartel gehiago erostera deitu dituzte herritarrek. Zozketa urtarrilaren 6an egingo dute, 18:00etan, Andra Mariko elizpean bertan. Kriskitin Dantza Taldeko kideek lagunduko diete zozketako zenbakiak ateratzen. Aurten, JAEDek 60 urte bete ditu elkartasuna banatzen.



Guardia Zibilak zabalduko irudia.

Sei kale saltzaile atxilotu dituzte faltsuturiko arropa saltzea egotzita

Atxilotetek urriaren 22an dute jatorria, Durango jaien bigarren domekan poliziak eginiko operazio batean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Europa Press berri agentziak jakinarazi duenez, Guardia Zibilak sei lagun atxilotu ditu Durango, faltsuturiko arropa saltzea egotzita. Poliziak urriaren 22an hasi zituen eginbideak, jaietako bigarren domekan. Egun hartan, herrian zehar kale saltzaileen postuak zeudela eta, Guardia

Zibilak operazio bat hasi zuen, postuotan marka komertzialen arropa faltsutua saltzen zelakoan. Sei dira atxilotuak, baina zazpigarren bat ere ikertzen dabilzala. Berri agentziaren esanetan, faltsuturiko 3.783 arropa eta osagarri topatu zituen poliziak; guztira, 1.337.285 euroko balioa zuena.

Ahal Dugu: "EAEko aurrekontuetan ez da Gaitasun Handiko Osasun Zentrorik"

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoaldeko Ahal Duguk kritikatu duenez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aurrekontu autonomikoetan ez da "ospitalerik, Gaitasun Handiko Osasun Zentrorik edo osasun erreformatzurik" agertzen. Hori dela eta, koalizioak "alferrikakotzat" jo du hauteskunde kanpainan ospitale bat egingo dela agintzea, gero ez bada agindutakoa aurrekontuetan "gauzatzen". EAJri eta Durango alkate Mireia Elkoroiriberi zuzendu die kritika. "Legealdia agortzen dabilela eta, ez dirudi epe laburrean eraikitze eta egungo osasun egoera hobetzeko asmorik dagoenik", kritikatu du Sabina Mendez bozeramaileak.

Ahal Duguk azaldu du "aukera izan duen bakoitzean" Durangoaldeko osasun zerbitzuak indartzeko egitasmoak aurkeztu dituztela Eusko Legebiltzarrean, udaletan eta Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Zornotzako gobernu taldeak Aginte Plana kaleratu du, herriaren etorkizuna elkarlanean lantzerako gonbidatuta

Zornotzako EAJK eta PSE-EEK datozen lau urteei begirako Aginte Plana aurkeztu dute. Ainhoa Salterain alkateak esan du plana "familietan eta haien beharrezanetan oinarrituta" dagoela. Herritarren parte hartzea "berebizikotzat" jo dute



Jon Artabe, Ainhoa Salterain eta Alicia Hernandez.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako gobernu taldeak datozen lau urteei begirako Aginte Plana aurkeztu du. EAJK eta PSE-EEK babesturiko plana da eta, euren esanetan, Zornotza garatzen jarraitzea du helburu, "udalerririk bizitzeko lekurik onena izaten segi dezan". Aukera berdintasuna, ingurumena, kulturaren sustapena eta garapen sozioekonomikoa dira testuaren "funtsezko zutabeak". Ainhoa Salterainek herritarren "bizi kalitatea hobetzen" jarraitzeko konpromisoa hartu du. Era berean, alkateak adierazi du Aginte Plana azaltzeko liburuxka etxerik etxe banatuko dutela, eta dokumentua irakurtzeko gonbitea egin du, "testu irekia" delako, eta "herritarren ekarpenak funtsezkoak" direlako.

PSE-EEKo zinegotzi Alicia Hernandezek azpimarratu du alderdi bien artean egon daitezkeen "desadostasunak" gorabehera, "ikuspegi komun bat" partekatuta dutela Zornotzaren etorkizunerako. "Herritarrek berebiziko garrantzia izango dute plan honen inplementazioan. Espero dugu dokumentu hau tresna eraginkorra izatea tokiko gobernuaren eta zornotzar guztien arteko elkarriketa eta lankidetzaz sustatzeko", esan du Hernandezek. Jon Artabe zinegotziak hainbat asmoren berri eman du. Aurreratu du Enplegu Plana eta Enpresen Foro bat sortuko dituztela, eta tokiko merkataritza dinamizatuko dituztela. Horrez gainera, herritarren segurtasunari begirako plana eta mugikortasun iraunkorra aktiboki bultzatuko dituztela ere nabarmendu du. Euskara esparru guztietara zabaltzea eta aniztasun kulturalaren garrantzia nabarmendu gura dute. Ongizateari dagokionez, agintariek esan dute Osasun Plan Integral bat sortzeko lanean dabilzala.

Elorriok Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrituko du herritarren partaidetzagaz

Azaroaren 29an jendaurreko berbaldea egingo dute Arriolan, 18:30ean. Webgune bat ere martxan ipini dute



Paula Amutxastegi, Julene Lazkano, Maria Herrero eta Jone Belausteguigoitia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udala lanean hasi da HAPOa berritzen. 2011tik dute berri barik. Lur Studioren laguntzagaz, udalerririk osoaren antolamendu integralerako oinarritzakoa den tresna lantzen dabilza. "Gura dugun Elorrio eraikitzeko tresna berritzen hasi gara. Goitik behera erredaktatuko dugu", azaldu du Julene Lazkano alkateak asteon emaniko prentsurrekoan. Maria Herrero Hirigintza arloko zinegotziak, bestalde, prozesu luzea izango dela adierazi du, eta herritarren parte hartzea "ezinbestekoa" izango dela.

Herritarren parte hartzea bultzatzeko, hainbat ekintza egingo dute. Alde batetik, *happo-elorrio.eus* webgunea martxan ipini dute, eta bertan herritarrek inkesta bat egin dezakete Internet bidez. Bestetik, azaroaren 29an, 18:30ean, jendaurreko berbaldea egingo dute Arriolan. Amaitzeko, banakako eta taldekako elkarriketak eta ibilaldiak egingo dituzte, abenduan eta urtarrilean. Horrez gainera, ikerketa talde bat egingo da HAPOaren diagnostikoa egiteko. 12 lagunez osaturiko talde anitza da.

DOHAINIK

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

lanbide

LANDUNEI ETA LANGABEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK		
HASIERA: ABENDUA - URTARRILA		
IKASTAROA		ORDUAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK (praktikak enpresan)		
SSCS0208	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan, MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370
FABRIKAZIO MEKANIKOA		
UF1626	Karbono-altzairuzko TIG soldadura	90
UF1627	Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura	90
UF1624	Soldadura karbono-altzairuzko xafila eta profalez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin	90
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA (praktikak enpresan)		
IMAQ0108	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa, MF0116, MF0117	510

Aurreinskripzioa zabalik (ikastetxean eta/edo telefonoz) 688 665 300

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak

Lanbideren onarpenaren zain

Kualifikazioen Erregistroa
2005

Urritxe auzunea, z/g - Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com



Atxondoko eskolako ume batzuk.



Ezkerretik hasita, Saioa Alzola, Monika Irazola eta Larraitz Agirre.

Bertako ekoizleen ogia eta fruta, hamaiketako osasungarri baterako elikagai izarrak Atxondon

'Ertartie' elkarteko kideak arduratzen dira irailaz geroztik Atxondoko ikasleei hamaiketako osasungarriak eramateaz

ATXONDO • E.H./M.Z.

Atxondoko Eskolako ikasleen guraso elkarteak urteak daramatza haurren elikaduraz arduratuta. Hainbat izan dira azken urteotan egin dituzten eskari eta ekintzak, eta azkena ikasturte berrian martxan ipini berri dutena da. Atxondoko eskolako kideen laguntzagaz eta eskualdeko hainbat ekoizleren 'Ertartie' elkartearen babesagaz, hamaiketako osasungarriak ipini dituzte martxan. Hori horrela, bertako ikasleek eskualdeko ekoizleek eginiko ogia jaten dute astean

birritan, eta gainerako egunetan bertako fruta, besteak beste.

"Iazko urte amaieran, guraso elkarteak proiektu honen berri eman zigun. Elgetako eskolan ordurako martxan zen, bertara joan ginen, erakutsi egin ziguten, baloratu genuen eta interesgarria iruditu zitzaigun. Irailean martxan ipini genuen", azaldu du Saioa Alzola Atxondo Eskolako zuzendariak.

Umeei hamaiketako osasungarria jatea du helburu ekimenak, euren bertako eta sasoiko produktuak eskainita. Martitzenean, esaterako,

ogia, sagarrak eta mandarinak izan zituzten. "Polita da ume bakoitzak bere hamaiketako ekarri ordez, denek berdina izatea. Eta bertako ekoizleak eta euren produktuak ezagutzeko aukera izatea", gaineratu du Alzolak.

Martitzeneko hamaiketakoaren ardura Patxikobaso baserriko kideek izan zuten. Sagarrak eta ogia eramane zituzten. "Gu ekoizleak gara eta Atxondoko eskolara geuk ekoiztiriko elikagai osasuntsuak ekartzen ditugu", azaldu du Monika Irazolak, Iurretako Patxikobaso

baserriko kideak. Horrelako ekimenak "oso ondo" baloratzen dituztela azpimarratu zuen Irazolak. "Egitasmo hauek oinarritzoko dira denok aurrera egiteko. Eredu osasungarri bat aurrera eramateko bide bat da hau", gaineratu du Irazolak.

Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak urteetan dabil eredu osasungarria aurrera ateratzeko borrokan, eta apurka-apurka bidea egiten dabilta. "Ekimen hau oso garrantzitsua da; batez ere, gure umeei hamaiketako osasungarria jan dezaten. Gaur egun, joera han-

dia dugu edozer emateko umei; askotan, gure bizitza errazteko asmoz izaten da. Ekimen honeguz horrelakoak ekiditen ditugu. Guraso elkartearen honen berri izan genuenean, oso interesgarria iruditu zitzaigun", azaldu du Larraitz Agirre guraso elkarteko kideak.

Larraitz Agirrek gaineratu du oso pozik daudela ekimenagaz, eta bidea zabaldu diezaiekeela beste eskola batzuei ere: "Hau beste eskola batzuetara zabaltzeko modukoa dela uste dut, eta ez bakarrik umeei bertako eta sasoiko fruta edo ogia jaten dutelako. Honeguz, opil industrialak ekiditen dira, papera edo aluminio papera alde batera uzten dugu, ikasle guztiek hamaiketako berdina daukate eta, zelan ez, gurasoek goizetan lan bat gutxiago daukagu, ez dugu burukomin hori", gaineratu du.

Abadiñoako Udalak 300.000 euro ipiniko ditu Gerediagako ur hornidura sare publikora lotzeko

EH Bilduk, Abadiñoako Independente Berriek eta PSE-EEK aurrekontuen alde egin dute. EAJko kideak abstenitu egin ziren



Martitzeneko osoko bilkurako argazkia.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte hasieragaz batera aurrekontu berriekin martxan jartzeko asmoz, Abadiñoako Udaleko osoko bilkuran 2024ko aurrekontuak onartu zituzten martitzenean. Udalak 12.457.071 euroko aurrekontua onartu du datorren urterako, EH Bilduren, Abadiñoako Independente Berrien eta PSE-EEren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen. "Prozesu honetan, denen parte hartzea eta lankidetzat egon dira. Guretzat oso garrantzitsua da hori. Horrela lan egitea onuragarria da abadiñar guztientzat", adierazi zuen Mikel Urrutia alkateak.

Osoko bilkuran, EH Bilduko Unzalu Salterain zinegotziak azaldu zituen aurrekontuak. "Gastu

arruntetan eguneratze garrantzitsu bat izan da, %12ko eguneratzea. Gastuak eguneratu barik egon dira eta datozen urteetan beste horrelako eguneratzerik ez egotea espero dugu, eta inbertsioetarako diru gehiago izatea, esaterako", adierazi zuen Salterainek.

2024an, inbertsioetako diru atalik handiena Gerediagako ur hornidurarako proiektuak eramango du. Udalak 300.000 euro ipiniko ditu proiektu horretarako. Bestalde, 25.000 euro Gazteluko ermita konpontzeko erabiliko dituzte, eta 130.000 euro aurrekontu parte hartzaileetarako. "Hauek dira momentu honetako inbertsio nagusiak, baina ikusi egin behar da martxo amaieran 2023ko gera-

kinean zenbat diru dagoen, eta zer beste proiektu gauzatu dezakegun", gaineratu zuen Salterainek osoko bilkuraren ondoren.

Bestalde, Jose Luis Navarro Abadiñoako Independente Berriek taldeko kideak azaldu zuen udala Udalkutxak emaniko diruaren menpe dagoela, eta "zuhurtziaz jokatu" eta udala bera autosufizientea izan behar litzatekeela nabarmendu zuen.

PSE-EEK Patxo Campok esan zuen aurrekontuak ezinbestekoak direla abadiñarren bizi kalitatea hobetzeko, eta datozen urteetara begira oinarritzoko sei zutabe konputuan hartzeko eskatu zuen.

Jeltzaleak abstenitu egin ziren bozketan. "Abstenitu egin gara denen ongia lehenetsi dugulako eta ulertzen dugulako udalak konputuak behar dituela herritarren bizi kalitatea eta udalak ematen dituen zerbitzu publikoak hobetzen jarraitzeko", azaldu zuen ohar baten bitartez Mikel Garaizabal EAJren bozeramaileak.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hartz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13

clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06

**Abinara
Urreta
Jainaga**

**OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Saio personalizatuak dira,
talde txikietan.

Tranabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

Mañariko Hontza Museoan 'Aberre ba, Kirikiño eta animalia palindromoak' izeneko erakusketa berria inauguratu dute

Animalien izenetatik abiatuta sorturiko askotariko palindromoak dira martxora arteko erakusketa berriaren muina

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Hontza Museoak erakusketa berria inauguratu du eta orain artekoekin ez du batere zerikusirik, desberdina da. Oraingoan ez dute museoko biltegi aberatsa jo —47.000 pieza inguru dituzte— aldi baterako erakusketa berria osatzeko. Kasu honetan, natur-zientzien museoak literaturari zabaldu dio atea, eta ikusten denak baino gehiago irakoditzen denak hartuko du garrantzia. Zehatzago esanda, animalien izenak eta eurekin eginko palindromoak izango dira erakusketaren muina. Palindromoa ezkerretik eskumara zein eskumatik ezkerre berdin irakurtzen den berba edo esaldia da.

Erakusketa 2024ko martxora arte egongo da bertan, eta museoko sarreran eta lehenengo solairuko zati batean kokatu dute. Hainbat koadroz osatuta dago. Koadro bakoitzean palindromo bat ageri da, animalia baten izena beste berba batez —edo batzuekin—, berbek palindromoa osatzen dutelarik:



Hontza Museoeko Enrike Huerta eta Leire Huerta, eta Bigara proiektuko Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia astelehenerako aurkezpenean.

oilarra lio, aker oreka, ele bele, kirrun inurrik... Erakusketa elkarlan baten ondorioa da, Hontza Museoaren eta Donostiako Bigararen artekoa. Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia sortzaileek osatzen dute Bigara, eta palindromoekin duten

"lilura" aspaldikoa da. Biek honela azaldu zuten proiektuaren sorburua erakusketaren aurkezpenean: "Animalien izen askok, beste aldera irakurrita, beste hitz bat ezkutatzen zutela konturatzea izan zen abiapuntua".

Zergaitik Mañaritan ?

Erakusketa Mañaritan egitea eta 2023an egitea ez da kasualitatea. Ebaristo Bustintza 'Kirikiño' (Mañaria, 1866-1929) idazle eta kazetaria da erakusketa herriagaz lotzen duen haria. 1923ko estatu

kolpea ematerakoan, Primo de Riverak debekatu egin zuen euskararen erabilera publikoa. Horrek zuzenean eragin zion Kirikiñok lan egiten zuen Euzkadi egunkariari; euskaratik gaztelaniara pasatu behar izan zuten. Egunkarian euskara zelanbait bizirik mantendu guran, euskarazko palindromorik luzeena bilatzeko lehiaketa hasi zuten. "Lehiaketa egunkarian euskara sartzeko aitzakia bat zela pentsatzen dugu, sorkuntzaren bidez euskara egunkarian bizirik mantentzeko modu bat", azaldu zuen Aranburuk. Aurten lehiaketa haren 100. urteurrena betetzen da.

Mañariko erakusketa proiektu zabalago baten parte da. Ekimen gehiago egongo dira. Abenduaren 16an euskarazko palindromo lehiaketari ekingo diote. Gainera, Markos Gimeno (Ermua, 1974-2018) artista polifazetikoaren lana jasotzen duen erakusketa egongo dute Gernikan. Ildo horretatik, Joseba Sarrionandiak idatzirik 'Markos Gimenoaren 101 letrakartel' liburua ere aurkeztuko dute.

Otxandioko Udala herritarrekin batu da osasun zentroko egoeraz informatzeko

Otxandioko osasun zentroko mediku bakarra "bajan" dagoela eta azken asteetan kontsultako kobertura "partziala" baino ez dela izan salatu dute udal ordezkariak

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Udalak herriko osasun zentroko lehen arretak dituen gabeziak salatu ditu. Ildo horretatik, herritarrei egoeraren berri emateko, batzar zabal bat egin zuen martitzen arratsaldean Kontseilupean. Bertan, eskura duten informazioa partekatu, eta herritarren kexak eta iritziak jaso zituz-

ten. Otxandioko osasun zentroko mediku bakarra "bajan" dagoela eta azken asteetan kontsultako kobertura "partziala" izan dela informatu zuten udaletik. Zerbitzua ematera beste zonalde batzuetako medikuek bertaratu behar izan dute. Egun batzuetan herrian ez dutela medikurik izan esan zuten, eta egoera hori ez dela jasagarria.

"Egoera hau luzatzeak Otxandioko kontsultako medikuaren kobertura %70 murriztea ekarriko du; hau da, gutxienez hiru egunetik bitan herrian medikurik ez izatea ekarriko du", salatu zuten. Udalak egoerari "irtenbide bat ahalik eta lasterren" emateko eskatu die, ofizialki, Osakidetza eta Osasun Sailari.



Udal ordezkariak herritarrek informatzen, martitzen arratsaldean Kontseilupean egindako batzarrean.

Hainbat abesbatzak kontzertua emango dute zapatuan Mallabiko elizan

MALLABIA • J.D.

Asteon Santa Zezilia eguna izan da, musikarien patroia, eta herririk herri kontzertuak antolatu dituzte eguna ospatzeko. Mallabia ez da salbuespena izan. Mendibil eta Jasokunde abesbatzen kontzertu

Biharko kontzertuak Jasokunde, Mendibil eta Bixente Goikoetxea abesbatzak batuko ditu

bat antolatu dute. Udala ekimeneko laguntzailea da. Kontzertua zapatu honetan izango da, 19:00etan, Mallabiko elizan. Bertan, hiru abesbatza batuko dira: Mallabiko Jasokunde eta Mendibil abesbatzak eta Aramaioko Bixente Goikoetxea abesbatza. Mallabiko trikitixa eskolako laguntza izango dute. Kontzertuaren ondoren, gazteñerrea egongo da bertaratzaren direnentzat.

Umeentzako 'Liburu magikoen etxea' ikuskizuna Izurtzan, abenduaren 1ean

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak ekimen berri bat antolatu du erabilera anitzeko aretoan. Kasu honetan, umeentzako ipuin kontakizun saio bat izango da, *Liburu magikoen etxea* izeneko. Abenduaren 1eko barikuan izango da,

Usabiagak umeentzako hainbat ipuin kontakizunak dituzte abenduaren 1ean

17:30ean. Sarrera doakoa da eta bost urtetik gorako umeek zuzenduta dago.

Lur Usabiaga ipuin kontakizunak umeentzako hainbat ipuin kontakizunak dituzte Pexil pertsonaiaren bitartez. "Pexilak askari gozoa prestatu du lagun berezi batzuentzat: liburuak. Baina ez edozein liburu, bere ipuin gustukoena baino", aurreratu dute antolatzaileek ikuskizunari buruz.

Mobilizazioak eta askotariko ekintzak azaroaren 25erako

Mobilizazioetara deitu dute Abadiñon, Durangon, Elorrion, Mañarian, Iurretan eta Zaldibarren. Ekitaldien artean, Durango Kirol Taldeak lasterketa antolatu du azaroaren 25erako; bestalde, Zornotzan, herriko emakumeen testigantzekin osatu duten '11 emakume 11 istorio' dokumentala proiektatuko dute Zornotzan

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Azaroaren 25a dela eta, Durangaldeko herri askotan mobilizazioak deitu dute. Abadiñon, esate baterako, azaroaren 24an *Biolentzia matxisten aurkako 24 orduko konponketa* ikuskizuna izango da Pino plazan, 18:00etan. Azaroaren 25ean elkarretaratzea egingo dute, Mugimendu Feministak deituta, 12:30ean, txanpota plazan. Abadiñoko egitaraua abenduaren 1ean Errota kultur etxean taularatu dute *Emakumea antzezlanagaz* borobilduko dute.

Durangon giza katea egingo dute gaur, Alde Zaharrean; ikastetxeetako ikasleek parte hartuko dute bertan. 11:30ean kontzertua egingo dute eta A25eko abestia taldean abestuko dute Alarma Moreagaz batera: *Ez beti da ez*. Azaroaren 25ean adierazpen instituzionala eta lore eskaintza egingo dituzte, 12:00etan, Ambrosio Meabe plazako oroigarrian. Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak mobilizaziora deitu du. 13:00etan izango da, udaletxe aurrean.

Durangon, Durango Kirol Taldeak Emakumeen VI. Lasterketa antolatu du azaroaren 25erako. Ezkurdi plazan hasiko da. Lehenengo, ibilbide testimoniala egingo dute, eta jarraian emakumeen lasterketa, 5 kilometrokoa.



Durango Kirol Taldeak antolaturiko Emakumeen Lasterketako aurreko edizio bateko argazkia.

Domekan, 19:00etan, Histrion Teatro antzerki konpainiak *Nevenka* obra oholtzaratuko dute San Agustin Kulturgunean. Amaieran, berbaldia egongo da antzerki konpainiak kideen eskutik.

Abenduaren 1ean, Maitena Monroy egileak *Autodefentsa feminista. Más allá de decir no* liburuaren aurkezpena egingo du, Andragunean.

Bestalde, Zornotzan, adierazpen instituzionala egingo dute azaroa-

ren 25ean, 12:00etan, udal plazan. 20:00etan, *11 emakume, 11 istorio* dokumentala proiektatuko dute Zornotza Aretoan. Herriko emakumeen testigantzekin landu duten ikus-entzuzkoa da.

Elorrion, *Indarkeria Matxistarik Gabeko Herria* goiburuagaz mobilizaziora deitu dute, azaroaren 25ean, 13:00etan, herriko plazan.

Iurretan, azaroaren 24an pegatzen eta puntu moreen banaketa

egingo dute, Ibarretxen. Gero, Bel-dur Barik Lehiaketa 2023 Bideoen proiektua eta sari banaketa egingo dituzte, 18:00etan. Helduentzako ipuin kontalaria ere izango da: *Emakumeak maite zituzten herria*, Maite Frankogaz. Azaroaren 25ean adierazpen instituzionala irakurriko dute, Askondon, 12:30ean. Ondoren, manifestazioa egingo dute.

Mallabian elkarretaratzea egingo dute azaroaren 24an, frontoi-

ko aldapan, 12:00etan. Eskolako umeen leloak erakutsiko dituzte eta indarkeriaren kontrako abestia kantatuko dute. Genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazio tailerra eta eskulan tailerra egingo dituzte azaroaren 25a aldarrikatzeko. Kontzejuzarrean izango da, 16:30etik 18:30era, Nahikari emakume elkarteak antolatuta. Azaroaren 26an, Film Laburren III. Jaialdia egingo dute, Kontzejuzarrean, 12:15etik 14:00etara. Antolatzailea Nahikari emakumeen elkartea da.

Mañarian, indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea egingo dute 18:00etan plazan.

Otxandion ekitaldia egingo dute azaroaren 25ean, txoko ondoko kantoian, 19:00etan. Kanca-neo Teatroran emanaldia izango da, 20:00etan, txokoan. Bagaizan talde feministak antolatuta.

Zaldibarko liburutegian *Volar* dokumentalaren emanaldia izango da azaroaren 24an, 18:00etan. Ondoren, Bizitu elkarteak kideek berbaldia emango dute. Bestalde, eskolako umeek eginiko borobil morea ikusgai egongo da eskolan. Azaroaren 25ean, borobil morea udaletxeko plazan izango dute ikusgai. Leku berean, elkarretaratzea egingo dute 13:00etan, Zaldibarko Dominika talde feministak deituta.

Aurrekaririk bako greba orokorra, indarrean dagoen zaintza eredia berrasmazten hasteko

Azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo da Euskal Herriko luze zabalean. Durangaldeko herrietan ere hainbat ekintza eta mobilizazio antolatu dute



Zornotzako greba komiteak elkarretaratzea egin zuen orain dela egun gutxi, osasun zentroko langileekin.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Herriko mugimendu feministak mugarririk bako greba orokorra egingo dute, "zaintzarako eskubide unibertsala bermatu" behar dela eta horretarako "bitarteko publikoak ezarri eta ohiturak aldatu" behar direla aldarrikatuta. Mobilizazioak mugimendu feminista izango du buru, baina horrek ez du esan gura greba mugimendu sozial horretarako bakarrik mugatzen denik. Ez. Zaintzaren arloak gizarteko eremu, maila eta pertsona guztiengan eragiten duela iritzita, herritar oro, gizarte osoa, deitu dute greban parte hartzera, gizonezkoak barne. Funtsezkotzat jo dute sektore guztien inplikazioa eta haiengandako interpelazioa.

Eskualdeko protesta, Durangon

Eskualdeko mugimendu feministak martxoaren 8an ekin zion

greba antolatzeko bideari. Orain, azken txanpan sartuta, greba egunean egingo dituzten ekintza batzuen berri eman dute. Adibidez, 18:00etan, eskualde osoari begirako manifestazioa egongo da Durangon. Mobilizazioak Plateruena Kultur Aterpearen aurretik irtengo du. Zornotzan 17:30ean manifestatuko dira, herriko plazatik hasita. Horrez gainera, herri bakoitzeko greba komiteak beste mobilizazio batzuk ere antolatu ditu, nork bere herrian. Zaintzagaz loturiko eremuetara eraman gura dituzte aldarrikapenak, besteak beste.

ANBOTOK bat egingo du grebagaz

Hedabide honetako lantaldeak bat egingo du greba orokorra feministagaz eta zaintza sistema berrasmatzeko eskariekin. Lantaldeko emakumeek egun osoa greba egingo dute. Gizonezkoek zerbitzu minimoak egingo dituzte, grebari bakarrik jarraipena eginda.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



Tabuen kutxatik oholtzara bertso saio solidario musikaturako bi sarrera. Abenduaren 3an, Berrizko Kultur Etxean.



Futbolistok ikuskizunerako bi sarrera. Abenduaren 3an, Zornotza Aretoan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Gauargin: Edorta Berasaluze Valdes

'Sexberdinak' Berrizen: Miguel Angel Bernaola Urretxa

Gosaria Xiberun: Jasone Ibarra Unzueta

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Zaldibar Argituren elkarretaratze bateko argazkia, Durangoko Epaitegiaren aurrean.

Zaldibar Argituk elkarretaratzea egingo du astelehenean Durangon

09:45ean epaitegien aurrean batuko direla iragarri dute

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibar Argitu plataformak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak elkarretaratzea deitu dute datorren astelehenerako, hilak 27. Durangoko epaitegien aurrean egingo dute elkarretaratzea, 09:45ean; izan ere, Xabier Galdos, Idoia de la Vega eta Carlos Luengo Eusko Jaurlaritzako teknikari orduan deklaratu beharko dute Eitzagako zaborteziaren amiltzearen kasuan, ingurumenaren kontrako delituak azterzen dituen epailearen aurrean. "Etsigarria da orain arte Eusko Jaurlaritzako inor pasatu ez izana epaitegitik euren jarduna azal-

tzera", azaldu dute. "Hiru hilabete baino gutxiago falta da hondamendiaren laugarren urteurrena betetzeko eta honela gabiltza. Areago, abenduaren lehenengoan amaituko da instrukzioaren enegarren luzapena, Eusko Jaurlaritzako teknikari ikertuek deklaratu eta hiru egunera. Berriro diogu: atzerapenik ez badago eta deklaratzeko badute. Kontua da instrukzioa berriro luzatuko dutela, eta horrela *ad eternum*", diote oharrean. "Guk geuk ez dugu etsiko. Gertaturikoa argitzeko ahaleginean jarraituko dugu, ardurak zehaztea exijitzen dugu, penalak eta politikoak".

Zaldibarko Jendeak elkarteak jaurtiko du San Andres jaietako txupina

ZALDIBAR • A. M.

Ofizialki, azaroaren 29an hasiko dira Zaldibarko San Andres jaiak, Zaldibarko Jendeak elkarteak jaurtiko duen txupinagaz; hasiera ekitaldia 19:00etan izango da. Gero, Olazar frontoian basatxerri solomo pintxoak eta Olazar txapelketako partidua egingo dira. Aurretik, domeka honetan, hilak 26, Neguko Nekazaritza Azokaren XXIV. edizioa egingo dute. San Andres jaiak Zaldibarko Udalak eta herriko elkarteek elkarrekin antolatu dituztela azaldu du udalak; horrez gainera, azaroaren 30eko Greba Feministagaz bat egin, eta egun horretan ekitaldirik ez dela antolatuko ere esan dute, soilik jubilatuentzako bazkaria eta Koral elkartearen emanaldia. Jaiak hurrengo asteburuan jarraituko dute. Abenduaren 1ean pintxo solidarioak eta DJ Josemari egongo dira Olazarren, Helmuga elkarteak antolatuta. Baturiko dirua Danobat emakumeen zentrorako izango da. Egun bat geroago, *Dantzatzeko prest!* disko festa egingo da, eta, jaiak amaitzeko, Zaldibarko ate irekien eguna eta euskal mitologian oinarrituriko jokoak egingo dira Olazarren.

BakQ ziurtagiria HAZen bitartez eskatu daitekeela gogoratu du Berrizko Udalak

Udalak BakQ ziurtagiri elektronikoa lortzeko zerbitzu elektronikoa berria du otsailetik



HAZen bitartez eskatu daiteke BakQ Berrizen.

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalak berriztarrei dei egin die BakQ ziurtagiri elektronikoa "modu erraz eta doako" batean eskuratzeko. "Ziurtagiri honek, herritarrek hainbat izapide telematikoa egin dezakete, bai udalaren egoitza elektronikoa, eta baita Osakidetzan, Eusko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Foru Aldundian ere", azaldu dute udal iturriek ohar baten bitartez. Otsailaz geroztik, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren (HAZ) bitartez egin dezakete tramitea. Ziurtagiria 16 urtetik gorako berriztarrek eskatu dezakete, eta, horretarako, Herritarrentzako Arreta Zerbitzura jo beharko dute, 08:30-14:30 bitartean; helbide elektronikoa bat eta telefono mugikorra izan beharko dituzte.

Zubiaurre familiako kide guztiak batera daude jada, sorterriaren goxotasunean

Ricardo Gutierrez Abascal arte kritikariaren gorpuzkiak Garaira ekarri dituzte, Zubiaurre familiako kideen panteoira. Sakabanaturik egoniko kide guztiak batera daude, sorterrian

GARAI • EKAITZ HERRERA

Zirkulua itxi dute. Familia intelektual eta kulturgile oso baten urte luzeko sakabanaketa asteen eman dute amaitutzat. Hamarkada askoren ondoren, Zubiaurre familia esanguratsuko kide guztien gorpuzkiak sorterrian daude, behinola eta egungo herrikideen babesean. Hori dela eta, Garaiko Udalak eta Gerediaga elkarteak oroi

ekitaldia egin dute Zubiaurrearren ondorengoak, Durangoko Arte eta Historia Museoko kideak eta Bilboko Arte Ederren Museoko ordezkariak lagun.

Valentin Zubiaurre musikariaren (aita), Mari Paz Agirrezabalen (ama) Valentin Zubiaurre margolariaren (semea), Ramon Zubiaurre margolariaren (semea) eta Pilar Zubiaurre idazle eta kultur ekintzai-

learen (alaba) gorpuzkiak familiako panteoian zeuden lehendik ere. Baita Pilarren seme Leopoldo Gutierrezen ere. Baina kide bat sorterriratzea falta izan da orain arte, Pilarren ezkontide Ricardo Gutierrez Mexikotik Euskal Herrira ekartzea. Asteen egikaritu dute sorterriratze hori, arte kritikaria hil zenetik 60 urte igaro direnean.



Miriam Alzuri, Erramun Osa, Nerea Mujika, Miren Pilar Gutierrez Zubiaurre, Jon Irazabal eta Garazi Arrizabalaga.

Lehendakariak Iurretako Jeremias enpresa bisitatu du

Enpresak berrikuntzan egoniko lana nabarmendu du

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia sailburua tximinia modular metalikoen fabrikazioan erreferentia den Iurretako Jeremias enpresan izan dira asteen, bertoko lana eta etorkizuneko proiektuak ezagutzen. Jeremias munduan ikur da bere arloan, eta 25 herrialdetara bideratzen ditu bere salmenta eta negozio lerroak. Aireportuetako, estadioetako,

ospitaleetako eta hoteletako tximinia sistemak diseinatzen dituzte, besteak beste. Urkulluren berbetan, "egunero zaindu eta hobetu behar den eredu ekonomikoa" markatzen dute enpresek, "ongizatearen oinarritzko zutabe baitira". Lan baldintza onak defendatzeko lan egin gura dutela esan du, eta langileak zoriondu ditu "ametsa eredu bihurtu" dutelako.



Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia sailburua Iurretako Jeremias enpresan.

Mankomunitateak "gizarte zerbitzuak indartu" gura ditu aurrekontuagaz

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko Mankomunitateko gobernu taldeak "gizarte zerbitzuak indartuko dituen aurrekontu proposamena" aurkeztu du. Gizarte zerbitzuetara bideratutako dirua eta langile kopurua handitu gura dituzte, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak kudeatzeko profil berria sortuta, zehaztu dutenez. Idoia Otaduy presidentek esan du "pertsonei zerbitzu hobe bat" ematea eta "gizarte zerbitzuak hobetzea" izango duela oinarri.

Bestalde, hondakinak batzeko kamioi berri bi erostea (690.000 euro) aurreikusi dute, eta eraginkortasun energetikoa hobetzea (90.000 euro) Abadiño-ko trinketean, Durangoko atletismo pistan eta Iurretan hondakinak kudeatzeko dagoen plantan. Proiektua osatuta, oposizioaren esku utzi dute testua. Idoia Otaduy presidentek eta Ainara Otxotorena presidenteordeak "akordioetara heltzeko prestutasuna" agertu dute.

"Oso pozik nago familiako kide guztiek Garain lur hartu dutelako; gure aitaren guraria bete da"



MIREN PILAR GUTIERREZ ZUBIAURRE

GARAI • E.H.

Miren Pilar Gutierrez Zubiaurre Valentin, Ramon eta Pilar intelektual emankorren biloba da. Mexikon jaio zen 1962an, familia han erbesteratuta zegoela, eta Garain bizi da gaur egun, familiarako etxean, Landabarrenan. Hunkituta dago bere familiako arbaso guztiak sorterrian daudelako, elkarregaz.

Zure aitita Ricardo Gutierrezen gorpuzkiak Garain daude, familiarako panteoian. Zelan bizi izan duzu oroiaren ekitaldia?

Oso urduri egon naiz ekitaldian zehar, eta oso-oso hunkituta. Pozik nago, egun hau antola-

tzea eta bizitzea beharrezkoa zen-eta guretzat.

Zelakoa zen zure aitita? Zein oroitzen duzu?

Ez nuen ezagutu, ez nuen zorte hori izan. Urte eta erdi nuen bera hil zenean. Gure aitak errespetu handia zion, errespetu handiz berba egiten zuen aitari buruz. Aitarentzat oso inportantea zen aitaren gorpuzkiak Mexikotik Euskal Herrira ekartzea. Aitita bat-batean hil zen. Aitak eta senideek bizkor hartu behar izan zituzten erabakiak. Nire amamak erabakita zeukan hildakoan Garain egon gura zuela. Aitita Ricardo ekartzea falta zitzaigun. Ahizpa eta biok ibili gara sorterriratzea kudeatzen.

Oroiaren ekitaldian honako ideia hau nagusitu da: "Zirkulua itxi da".

Bai, halantxik dela uste dut. Familiako kide guztiak hemen daude. Eta oso pozik nago hemen lur hartu dutelako, bakean daudelako. Aitaren guraria bete da.

Zaldibar
XXIV NEGUKO
AZOKA
AZAROAK 26

10:00 EPaimakariaren erabakia
11:00 AZOKAREN KASIERA
12:00 kalejira ein 90 taldearen eskutik
90:00 Zehar: sagar doa nola egiten den ikusteko aukera



Iurretako dantzariak.

Iurretako dantzariak eskertuko dituzte Gorulari dantzak berreskuratzeagaitik

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak eta Deia egunkariak 'Dantza Tradizionalaren Esker Onak' ekitaldia egingo dute azaroaren 28an. Egitasmoaren zazpigarren edizioa izango da, eta, urtero legez, Bizkaian euskal dantzen alde eragiten duten herritarrak eta taldeak eskertuko dituzte. Tartean, Iurretako dantzariak. Antolatzaileek Mikel Deuna dantza taldea sarituko dute Gorulariak berreskuratutako zuzentzenetik 50 urte bete

direla aprobetxatuta. Esker emate ekitaldia Bilboko Euskalduna jauregian egingo dute, 19:30ean.

Iurretako dantzariekin batera, honako beste eragile hauek ere sarituko dituzte: Imanol Aretxabaleta Aginaga txistularia, Kontxi Mujika Etxebarria eta Gaizka San Pedro Altonaga, Bizkaiko Abesbatzen Elkarte, Urdaibai dantza taldea, La Encartada txapelen fabrika eta museoa, Leitzako Aurrera dantza taldea eta Euskal Dantzarien Biltzarra.

Politikan

Carlos Garcia
Fernandez
PP



Euskadiko esportazioak (+%57) Espainia osoko en erdia hazi dira (+%108)

Urkullu lehendakariak Iurretako enpresa batera egindako bisitan jakinarazi zuen euskal industriaren esportazioak %57 hazi direla azken hamabost urteotan, eta Eusko Jaurlaritzaren buru izan duen kudeaketaren lorpen gisa aurkeztu du datu hori.

Baina errealitate urrun, itxuraz positiboa den datu hori oso datu negatiboa da, kontuan hartuta Euskadi tradizioz eta duela mende batzuetatik hona

Durungaldea asteen

Atxondoko Gaztetxeak 25. urteurrena ospatuko du abenduaren 2an, herri bazkari batez

ATXONDO | Abenduaren 2an Atxondoko Gaztetxearen 25. urteurrena ospatuko dute, egitarau zabal batez. 14:30ean emango diote hasiera egitarauari, Apatako frontoian egingo den bazkariagaz. 17:30ean herri kirolak egingo dituzte, frontoian bertan, eta 20:30ean ekitaldia Gaztetxean. 21:30ean hasita, kontzertuak izango dituzte Gaztetxean: El poni, Garraio eta DJ Lamikiz eta Martinez.

Urkiola Landa Garapenak Durangoko elikadura-komunitatea sendotzeko jardunaldiak antolatu ditu



DURANGALDEA | Durangaldeko Urkiola Landa Garapenak elikaduraren inguruko topagune batean parte hartzera deitu ditu ekoizle eta kontsumitzaileak. Durangaldeko elikadura-komunitatea sendotzea da jardunaldi hauen helburua. Azaroaren 28rako Durangaldeko ekoizpenaren eta kontsumoaren mapa. Tokiko elikadura-komunitatearen alde lan egiten duten bertako elkarten esperientziak berbalda antolatu dute Durangoko Elkartegian. 18:00etatik 19:30era izango da. Jardunaldi hau Neus Monllorrek eta Saioa Alvarezek gidatuko dute. Tokiko ekoizpen eta kontsumo taldeen esperientzien berri emango dute, besteak beste.

Abenduaren 13an bigarren jardunaldia egingo dute: Beste leku batzuetatik ikasi, guk zer nahi dugun ikusteko. Zeinek bere lurraldean, elikadura-komunitate baten alde lan egiten duten esperientzia inspiratzaileak berbalda emango dute Plateruena Kultur Aterpean, 19:30ean. Biziola ta CERAI esperientzien berri emango dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Pedro Zamalloa zornotzarrak 100 urte egin ditu

ZORNOTZA | Hilaren 16an, Pedro Zamalloa zornotzarrak 100 urte egin zituen. Zornotzako udal agintariak bere etxera joan ziren zoriontzera, eta lore sorta bat eta mendeurrena oroitzeko plaka bat oparitu zizkieten.

Zamalloak Maria Rosario Bruton emazteagaz eta Agur alabagaz ospatu zuen urtebetetze eguna.

inflazioa %36 hazi dela kontuan hartzen badugu, emaitza da gure esportazioak ez direla ia batere hazi azken hamabost urteetan

Espainia osoaren motor industrialia izan dela, eta une honetan oztopo bihurtu dela, epealdi berean Espainia osoko esportazioen hazkundea %108koa izan baita, Euskadikoaren bikoitza.

Horrez gain, inflazioa %36 hazi dela kontuan hartzen badugu, emaitza da gure esportazioak ez direla ia batere hazi azken hamabost urteetan. Gainera, 2023an esportazioen emaitza %2,2ko jaitsiera izan da.

Egoera kezagarria da eta are gehiago lehendakariak planteatzen duen irtenbide bakarra erreferendum bat egitea denean, zeinak enpresen egoera okertu baino ez duen egingo, eta, beraz, baita langileen egoera ere.

ESKELAK

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



BURUARI KLIK!




ITZALAK

Zein itzal dagokio
alboko mendizaleari?



LABIRINTOIA











TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko irudiko mendiak txikitik handira.







ZER ORDU DA?


Marrastu erlojuetan digitalki adierazitako orduak.



DOMINOA


Marrastu dagokion irudia lauki zurietan.





PUNTUAK LOTU

Lotu zenbakiak marra bakar batez eta irudi osoa lortuko duzu. Gero margotu gurago duzun moduan.



Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



> anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktueta %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***

Azaroaren 24an

ABADIÑO bertsoak

Bertso afaria Miren Amuriza eta Sebastian Lizasogaz, 21:00etan, Mendiolako Errekatxo elkartearen (680 116 710).

ABADIÑO kale antzerkia

'Biolentzia matxisten aurkako 24 orduko konponketak' (Las Kapritxosas), 18:00etan, Pino plazan.

DURANGO magia

'Medieval Magic Show' ikuskizuna (Oliver eta Liuba), 17:00etan, Otamotzena auzogunean.

DURANGO musika

Judith Jauregi, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO ekitaldia

Giza katea Alde Zaharretik, Kontzertua eta A25eko abestia taldean, Alarma Moreagaz batera.

ELORRIO antzerkia

'Mierda de ciudad', (Olatz Gorrotxategi), 18:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak

'Maritxiki', Pello Añorga ipuin kontalariaren eskutik, 17:00etan, bibliotekan (3-5 urte); 17:45ean (sei urtetik gora).

IURRETA narrazioa

Beldur Barik Lehiaketako bideoen proiektzioa eta sari banaketa, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean.
'Emakumeak maite zituzten herria' (Maite Franko) helduentzako ipuin kontaketa, 19:00etan, bibliotekan.

MALLABIA elkarretaratzea

Elkarretaratzea, 12:00etan, frontoiko aldapan. Eskolako umeen leloak eta indarkeriaren kontrako abestia abestuko dute.
Genero indarkeriaren kontrako sentsibilizazio eta eskulan tailerrak, Azaroaren 25a aldarrikatzeko, 16:30ean Kontzejuzarrear.

ZALDIBAR dokumentala

'Volar' dokumentala eta berbaldia (Bizitu elkarte), 18:00etan, liburutegian.

ZORNOTZA dantza

'Shine' (Lasala), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA ekitaldia

Emakumeen Indarkeriaren kontrako murala eta Emakumeen Memory jolasa, arratsaldean, Ludotekan.
Imanen tailerra, Gazte Txokoan.

Azaroaren 25ean

ABADIÑO ekitaldia

Elkarretaratzea, 12:30etan, Txanporta plazan.

BERRIZ antzerkia

'Sexberdinak' (Tanttaka), 19:00etan, Kultur Etxean.

BERRIZ ekitaldia

Giza katea herrian zehar, 18:00etan. Deitzaileak: Gure Izarrak, Berrizko Emakume Migratuak, Azeri Gorriak, Ermai eta Hiltegitxe.

DURANGO Suk Aldatu

Sukaldaritzaren gozoa ikastaroa (13-16 urte), 11:00etan, Merkatu plazan.

DURANGO ekitaldia

Adierazpen instituzionala eta lore eskaintza, 13:00etan, eraildako emakumeak oroitzeko gunean, Ambrosio Meabe plazan.

VI. Emakumeen Lasterketa, 17:00etan, Ezkurdi plazatik.

ELORRIO mobilizazioa

'Indarkeria Matxistikar Gabeko Herria', 13:00ean herriko plazan.

IURRETA ekitaldia

Adierazpen instituzionalaren irakurketa, 12:30ean, Askondon.
Manifestazioa. Herritarren sorkuntza: irakurketak, ahozko adierazpenak eta collageak. Jarraian, mokadutxo.

MAÑARIA elkarretaratzea

Indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea, 18:00etan, plazan.

OTXANDIO ekitaldia

Ekitaldia, 19:00etan, txoko ondoko kantoian.
Kankaneo teatroren ikuskizuna, 20:00etan, txokoan.

ZALDIBAR musika

Quattro Clavos + Star Drinkers, 22:00etan, Gaztetxean.

ZALDIBAR ekitaldia

Eskolako umeek eginiko borobil morea ikusgai, eskolan.
Elkarretaratzea, 13:00etan, udaletxeko plazan, Dominika talde feministak deituta.

ZORNOTZA ekitaldia

Erakunde adierazpena, 12:00etan, Herriko plazan.
'11 emakume 11 istorio' Zornotzako emakumeen buruzko dokumentala, 20:00etan, Zornotza Aretoan.
'Nire izena, zure izena, gure izena, Nire ahotsa, zure ahotsa, gure ahotsa' ipuin kontaketa (Mireia Delgado), liburutegian.

Azaroaren 26an

DURANGO antzerkia

'Nevenka' (Histrión), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Ondoren, solasaldia.

MALLABIA jaialdia

III. Film Jaialdia, 12:15etik 14:00etara, Kontzejuzarrear.

ZALDIBAR azoka

XXIV. Neguko Azoka, 11:00etan hasita.

ZORNOTZA zinema

'Ilargi guztiak' pelkula, 12:00etan, Besue elkartearen lokalean.

Azaroaren 29an

DURANGO berbaldia

'Suizidioari aurre hartzea' (Bizkaiko Psikologo Elkargoa), 18:30ean, Otamotzena auzogunean.

DURANGO ekitaldia

'Giza biblioteka', 18:30ean, Bizenta Mogel bibliotekan.

ELORRIO berbaldia

'1983ko uholdeak. Urak daroana, memorian daroagu' berriketaldia, 19:00etan, Iturri kultur etxean. Laumunarietak antolatuta.

Azaroaren 30ean

BERRIZ ipuinak

II. Heldu da Kontua: 'Mingots eta langarretik' (Joxe Aldasoro), 19:00etan, Kultur Etxean.

Abenduaren 1ean

ABADIÑO antzerkia

'Emckumeak' (Zelako Kultur Ideiak), 19:00etan, Errota Kultur Etxean.

DURANGO musika

Vanessa Goikoetxea, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO aurkezpena

'Autodefensa Feminista. Más allá de decir no' (Maitane Monroy), 18:30ean, Andragunean.

ELORRIO antzerkia

'La casa vacía' (Proyecto Larrua), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA dantza

'El Lago' (La Mov), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA irakurraldia

Oihane Amantegiren 'Ibaiertzeko ipuina' liburuen irakurraldia, 17:30etik 19:30era, Zelaietako Auditoriumean.

Abenduaren 2an

ABADIÑO tailerra

Graffiti tailerra (12-18 urte), 17:30ean Zelaietako eskolan. Izena emateko: Mediatekan edo Errotan.

OTXANDIO ikuskizuna

'Antxo eta Pantxo' umeentzako ikuskizuna eta txokolate beroa, 18:00etan, Arkotxe kultur elkartearen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Doraemon: Nobitaren dinosauro berria**
barikua 24: 17:00
domeka 26: 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Napoleon**
barikua 24: 19:00 / 20:30
zapateria 25: 16:30 / 19:30 / 20:45
domeka 26: 16:30 / 19:30
astelehena 27: 19:00
martitza 28: 19:00
eguztina 29: 19:00

• **Teresa**
barikua 24: 18:30
zapateria 25: 18:30 / 19:30
domeka 26: 18:30 / 20:30
astelehena 27: 18:00 / 20:15
martitza 28: 18:00 / 20:15
eguztina 29: 19:00

• **Wish: el poder de los deseos**
barikua 24: 18:30 / 20:30
zapateria 25: 16:30 / 17:15 / 21:30
domeka 26: 16:30 / 17:15 / 20:30
astelehena 27: 18:00 / 20:15
martitza 28: 18:00 / 20:15

• **Madame Butterfly (opera)**
eguztina 29: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Vidas pasadas**
zapateria 25: 20:00
domeka 26: 20:00
astelehena 27: 20:00

• **Alan giza katea**
domeka 26: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **11 emakume 11 istorio**
zapateria 25: 20:00

• **Vidas pasadas**
domeka 26: 20:00
astelehena 27: 20:15

• **Trolls 3: Todos juntos**
zapateria 25: 17:00
domeka 26: 17:00

• **Tetuán (JBGA)**
martitza 28: 20:15



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Durangoko Azokaren egitarauak 265 ekitaldi jasoko ditu; abenduaren 6tik 10era bitartean egingo dute aurtengo edizioa

Durangoko Azokaren edizio berria abenduaren 6tik 10era izango da; 170 partaide egongo dira, 248 erakusmahaitan, eta 950 nobedade ekarriko dituzte



Durangoko Azokako guneetako arduradunak.

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO
Ilusioz beterik eta euskal kulturaren alde elkarlanean aritzeko prest daudela azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediagako koordinatzaileak ekimenaren aurkezpenean: "Euskarak eta euskal kulturak gizartearen babesa behar dute, azken boladan euskalgintzak

ohartarazi duen moduan. Bultzada emateko norabidean lan egin dezagun denok, gure fantasia gau bateko amets zaputza izan ez dadin". Horretarako, Durangoko Azokak egitarau anbiziotsua aurkeztu du 58. edizio honetarako; guztira, 265 ekitaldi ditu, zazpi gunetan banatuta.

Gaztelurrutiak egitarauaren ezaugarri bi nabarmendu ditu: anitza eta gaztea. "Anitza askotariko estilo eta gaiak topatu daitezkeelako, eta gaztea inoiz baino jarduera gehiago izango direlako gazteek sortuak. Gugaz gura ditugu belaunaldi berriak". Adibidez, hamazazpi musika taldek euren

lehenengo lana Ahotsenean aurkeztuko dutela nabarmendu du Miren Narbaiza musikari eta guneko arduradunak: "Platerueneko zuzenekoetan elektronika, folka, popa, hardcorea, indiea eta rock doinuak plazaratuko dira". Musikarien artean, Nogen, Toc, Amorante, Eire, Ibil Bedi,

Txopet eta Muare egongo dira, besteak beste. Leihotikan ere nabarmendu dute, "ibilbide luzeko taldea" delako. Musika eskolako solasaldietan, idazleek euren lan berriak aurkeztuko dituzte; Harkaitz Canok, Lide Hernandok, Miren Agur Meabek eta Goiatz Labandibarrek, esaterako. Irudienean, Zugaza zinemaren, 30 emanalditik gora izango dira eta horien artean Izaroren bideoklip estreinaldia eta *Habana Glass* film laburra emango dituzte bertan. Saguganbara gunean, 23 ekintza antolatu dituzte. Elaia Torres durangarrak, adibidez, *Zure laguna naiz* liburua aurkeztuko du. "Haurrak eta familiak irakurketa eta literaturara hurbiltzeko gune aproposa da Saguganbara. Horretarako lan egiten dugu, irakurketa librerako gune lasai eta atsegin bat eskaintzeko", azaldu du Martxel Zubia arduradunak.

Durangoko Arte eta Historia museoa eta Talaia gunea hausnarketarako gune izango dira. Horrela, besteak beste, Suargi elkarteak *'Meridiano moreak, emakume zinemagileak, desgaitasuna eta zaintzak'* izeneko nazioarteko topaketa antolatu du, eta Ainhoa Olaso durangarrak bertan parte hartuko du beste sortzaile askoren artean.

Agustin Ibarrolaren 'Papera ardatz' erakusketa, artistaren alderdirik intimistenaren erakusgarri

93 urte gaz hil da Agustin Ibarrola; azken urteotako bere lanak, iazkoak barne, Durangoko Arte eta Historia museoan daude ikusgai



Jon Sergio, Irrintzi Ibarrola eta Garazi Arrizabalaga, erakusketaren aurkezpenean.

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Agustin Ibarrolak 1997tik 2022ra bitartean eginiko formatu txiki eta ertaineko 50 lan daude ikusgai Durangoko Arte eta Historia museoan. Erakusketaren inaugurazioak oihartzun handia izan du azken egunetan, izan ere, Agustin Ibarrola hil eta bihar-munean zabaldu zituen ateak. 93 urte gaz hil da artista, eta azken sasoiran arte lanean ibili dela erakusten du erakusketak. "Ibarrolaren alderdirik intimistena eta experimentalena erakusten da hemen; alde batetik, estraza paper gainean eginiko argizarizko grabatuak eta olio-pinturaz eginiko formatu txikiko piezak dira, eta, beste alde batetik, egunkari paperez eginiko collage edo eskulturak", azaldu zuen Irrintzi Ibarrolak, erakusketaren komisiario eta Agustinen semeak; Ibarrolaren lanak Durangon ikusgai egongo diren hirugarren aldian da hau. Urtarrilaren 28ra arte dago ikusgai.

Gai librean

Erreferenteak

Izan gaitzen zintzoak geure burua-gaz: ez gaituzte hezten idolorik edo erreferentzia artista zein pertsonaiarik barik aurrera egin dezagun. Txikitatik esaten digute “ikusten? Ikusten zure ikaskideak zelan antolatzen dituen koadernoak eta apunteak?” edo “ezinezkoa da futbolari, pelikula edo musika talde gustukoenik ez edukitzea”. Perfekzioaren obsesioak behartzen du norberak erreferentzia bat markatzea, norberarena edo komeni zaionarena.

Musikari dagokionean, talde erreferentzia garbi bat eduki dut (badut oraindik ere), baina atzo lau urte bete ziren taldearen “berri”-rik ez dugunetik. Taldearen zaleontzat hain zuzen berri txarrak izan ziren. 2011ko Durangoko Azokan ezagutu nuen gertutik taldea, *Haria* diskoaren aurkezpen akustikoan. Lagun batez joan nintzen ikustera, Ahotsenea beteta zegoen, eta gure 13 urtegez pertsonen arteko zirrikituetatik sartu behar izan ginen. Han gertatu zenak gaur-



Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

Perfekzioaren obsesioak behartzen du norberak erreferentzia bat markatzea, norberarena edo komeni zaionarena

Musika munduan erreferentzia berrien bila hasi nintzen, beharrik izango banu legez

dainoko orbaina eragin dit. Orbain ederra. *Makuluak*, *Non bestela*, *Iraila* kantu puskak entzun genituen.

Handik gutxira argitaratu zen YouTube eta halakoetan diskoa. Laguna eta biok bata besteari kanta berriak erakusten aritu ginen, akustikoaren gozoa atzean utzi eta distortsioa hartu genuen beso zabalik. Egunero gindoa-

zen ikasgelara kanta berri bat entzunda. Harrezkero, zortzi urtez, hainbat lekutan ikusi nuen taldea zuzenean. Baina denak du amaiera bat, baita Berri Txarrak ere. Fiachrasen kantu batek dio: “Bihotza ematen duzun ia gauza denek huts egiten dute. Atzera begiratu besterik ez da egiten bizitzan zehar”.

Halandaze, lehen zatiaren egia-tik bigarren zatiaren egiari muzin egin guran, musika munduan erreferentzia berrien bila hasi nintzen, beharrik izango banu legez. Eta esan beharra dut kostatzen ari zaidala. Eta ez da ez dagoelako non aukeratu, ez da mamirik ez dagoelako. Beharbada 13 urteko Igorrek talde hura ezagutu zuen uneko zera horren bila dabil nire barne sena. Baina, era berean, nabaritzen dut noraezak lagundu didala musikaren mundu handian askotariko txokoak ezagutzen. Ez dut inolaz ere inguruko batzuek arakatu duten bezainbeste arakatu, musikaren mundua erraldoia baita. Baina goiz da, lau urte baino ez daramatzat dolua egiten eta...

SAN ANDRES JAIK 2023

AZAROAK 19, DOMEKA

10:00 Zaldibarko XXI. Mendi Bizikleta Martxa. Irteera udaletxeko plazan.

AZAROAK 24, BARIKUA

18:30-20:30 Ilargi Argazki Taldearen argazki erakusketa kolektiboa liburutegi zaharrean.

AZAROAK 25, ZAPATUA

12:00-14:00 eta **18:30-20:30** Ilargi Argazki Taldearen argazki erakusketa kolektiboa liburutegi zaharrean.

AZAROAK 26, DOMEKA

11:00 Zaldibarko XXIV. Neguko Nekazari Azoka.

12:00 Kalejira Ein GO taldearen eskutik.

12:00-14:00 Ilargi Argazki Taldearen argazki erakusketa kolektiboa liburutegi zaharrean.

AZAROAK 29, EGUAZTENA

19:00 Zaldibarko dantzariak eta jarraian, jaien hasiera iragartzeko txaplogua jaurtiko du Zaldibarko Jendeak taldeak.

19:30 Olazar pilotalekuan Eusko Labeldun Basatxerri solomo pintxoan banaketa.

20:30 Olazar txapelketako pilota partidak pilotalekuan.

AZAROAK 30, EGUENA

GREBA FEMINISTA: EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTAK DEITUTAKO GREBA

FEMINISTA OROKORRAREKIN BAT EGINEZ UDALAK EZ DU EGUN HONETAN EKIMENIK ANTOLATUKO.

13:00 Zaldibarko Koral Elkarteko abesbatzak elizan abestuko du jubilatuen omenez.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

ABENDUAK 1, BARIKUA

18:30-20:30 XXX. argazki lehiaketako erakusketa liburutegi zaharrean.

19:30 Pintxo solidarioak eta DJ Josemari Olazarren, Helmugak antolatuta. Batutako dirua Danobat emakume zentroarentzat bideratuko da.

ABENDUAK 2, ZAPATUA

12:00-14:00 eta **18:30-20:30** XXX. argazki lehiaketako erakusketa liburutegi zaharrean.

18:30-20:30 Dantzatzeko Prest! Haurrentzat disko festa udaletxeko plazan. Eurria bada eskolako aterpean.

ABENDUAK 3, DOMEKA

11:00-13:30 Zaldibarko Arku Taldearen ate irekien jardunaldia, Olazarren.

12:00-14:00 XXX. argazki lehiaketako erakusketa liburutegi zaharrean.

16:30-19:30 JOKAI, Euskal mitologian oinarritutako jolasak eskolako kiroldegian.

JAIEN ANTOLATZAILEAK: • LAGUN ARTEA • ILARGI ARGAZKI TALDEA • ZALDUA PILOTA • ZALDIBAR ARKU TALDEA • ZALDIBARKO KORAL ELKARTEA • ZALDIBARKO DANTZA TALDEA • HELMUGA EMAKUMEEN ELKARTEA • ZALDIBARKO GURASO ELKARTEA • ZALDUA FUTBOL TALDEA • NAGUSIEN ELKARTEA • DOMINIKA TALDE FEMINISTA • ZALDIBARKO UDALA



Josu Arrinda Axpe

Motor pilotoa

ELORRIO | 1993



"Urte askoan ahalegindu eta sarritan irabaztetik gertu ibili naiz; garaipenak asko esan gura du"

Josu Arrindak bere ibilbideko urterik onena izan du Euskadiko Enduro Txapelketa irabazi eta cross countryan bigarren geratuta

MOTORRA • JOSEBA DERTEANO

Josu Arrinda elorriarrak Euskadiko Enduro Txapelketa irabazi du aurtan, senior trofeo kategorian. Hori gutxi baltz, Euskadiko Cross Country Txapelketan bigarren geratu da. Baina bere ibilbideko denboraldirik onena azkena ere izan daiteke, ekonomikoki ahalegin handia eskatzen duelako lasterketa guztiak egiteak. Aurrerantzean, beharbada, lasterketa bakar batzuk baino ez ditu egingo, ezin du-eta guztiz utzi hainbeste ematen dion kirola.

Enduro txapelketa sei lasterketak osatu dute. Zelan joan dira?

Hiru irabazi ditut, bitan podiumean egon naiz eta beste batean,

Llanesen, laugarren amaitu dut. Azken horretara lesionatuta joan nintzen. Derrigorrez joan behar nuen txapelketa irabazi gura banuen, eta ahalik eta punturik gehien batzea izan nuen helburu.

Posturik txarrena, laugarren. Erregulartasun handia erakutsi duzu. Lorpenen atzean lan handia dago?

Bai, aurtan inoiz baino serioago entrenatu naiz. Badaude gazteak aurtan lehiatzen hasi direnak eta garaipenak lortu dituztenak. Hasi nintzenean nik ez nuen horrelakorik lortzen. Niretzat "dena edo ezer ez" zen. Denbora askoan jarrera horregaz ibili naiz eta ez dut ezer lortu, lesioak eta garai txarrak

baino ez. Denboragaz txipa aldatu dut. Orain patxada handiagoagaz hartzen ditut lasterketak. Lehiakorra naiz, baina puntu bateraino. Gurago dut ondo egon, nire ongizatea arriskuan ipini eta lesionatuta egotea baino.

Irabazi duzun kategoria lehiakorra da?

Bai. Lehenengo hiru podiumak nahiko eroso lortu nituen, baina denboraldiak aurrera egin ahala gauzak orekatu egin dira. Beste gidariek euren maila igo dute. Azken lasterketetan bigarren geratu denak eta biok lehia estua mantendu dugu. Esaterako, Burgosko proban. Oso parean ibili ginen eta azkenean berak irabazi zuen. Azkenengo lasterketara aldetxoagaz heldu naiz, baina arazoren bategaitik lasterketa bertan behera utziz gero, ez nuen txapelketa irabaziko. **Zer sentitu zenuen txapelketa irabaztea lortu zenuen unean?**

Pisu handia kendu nuen gainetik, imajinatu ere ezin duzu egin. Azken metroetan, helmugara heldu aurretxoan, "lortu dut, neurea da" pentsatu nuen. Negar malkoak ere irten zitzaizkidan. Urte askoan ahalegindu naiz irabazten eta sarritan gertu geratu naiz. Garaipen honek asko esan gura du niretzat.

Cross Country txapelketa ere ondo joan zaizu, bigarren postua lortu duzu.

Enduroan gertatu den moduan, erregulartasuna izan da gakoa. Maila handiko parte hartzaileak

izan dira. Pozik nago nire emaitzagaz.

Alde handia dago modalitate bien artean?

Bai, ze cross countrya gehiago da erresistentzia proba bat. Ibilbide bati ordu bian itzuliak ematean datza. Ondo prestatzea eskatzen du. Gogoan dut Elgoibarko lasterketa bereziki gogorra izan zela. Eguraldi txarra egin zuen, mendia lokaztuta zegoen eta luze egin zitzaidan. Baina postu ona lortu nuen eta horri eskerrak geratu nintzen bigarren. Gainera, algun asko joan zen lasterketa ikustera eta oroitzapen politikak ditut.

Modalitate biek garrantzi berdina dute zuretzat?

Inportantzia berdina dute biek, bietan asko gozaten dudalako. Askok modalitate bakarra lehiatzen du. Gutxi gara bietan gabiltzanak. Azken batean, gastu ekonomikoa zein fisikoa bikoiztea eskatzen du. Modalitate bietan podiumean amaitzeari balioa ematen diot. Hori bai, oso nekatuta amaitu dut. Astebete eman dut gorputza erre-kuperatzeko.

Zer helburu duzu datorren denboraldirako?

Txapelketarik ez lehiatzea planteatzen nabil, gastu ekonomikoa oso handia delako. Beharbada lasterketa bakar batzuk baino ez ditut egingo. Ni gozaten dudalako joaten naiz lasterketetara, hango giroa bizitzearren. Urte askoan ez dut irabazi eta berdin-berdin jarraitu dut joaten. Bizitza osoa daramat horretan. Baina txapelketako lasterketa guztietara joatea gastu handiegia da. Dena neure poltsikotik ordaintzen dut, eta, azkenean, horrek gogoa kentzen dizu. Txapelketa irabaztearren ez dugu ezer jasotzen. Federazioak ez digu askorik laguntzen.



Josu Arrinda, enduroko lasterketa batean. **KAOX**

Etorkizuneko **Olazar Txapelketa** | Zuzenean **anboto.org**

Azaroaren 29an 20:30ean
ZALDIBARKO OLAZAR PILOTALEKUAN
LAU ETA ERDIAN: **EGIGUREN - ETXEBARRIA**
BINAKA: **MURUA - LOZA / FERNANDEZ - IRAZUSTABARRENA**
anboto

Fradesek arantza atera du Cozumel Ironmana irabazita

Munduko txapelketan aritzea eragotzi zion gaixotasuna gainditu eta Mexikoko proba irabazi du Gurutze Fradesek

IRONMANA • J.D.

Gurutze Fradesek ezin izan zuen urri hasierako munduko txapelketan parte hartu, gaixorik zegoelako. Une latza izan zen, baina atleta iurretarra ez da amore ematen duen horietarikoa. Burua jaso, Konatik Mexikora joan eta Cozumel Ironmana prestatzeari ekin zion. Lanak bere fruituak eman ditu eta Fradesek Cozumel Ironmana irabazi zuen joan zen asteburuan. Garaipenagaz batera, 2024an Nizan lehiatuko den mun-

duko txapelketarako sailkatzea lortu zuen.

Mexikoko Ironmana duatloi formatuan lehiatu behar izan zuten. Ez zen igeriketa saiorik egon, itsasoaren egoeragaitik. Bizikletan lan txukuna egin eta, ohikoa duen moduan, korrikako tartean atzetik aurrerako bidea egin zuen lehenengo tokian jarri arte. Helmugan honako hau izan zen bere denbora: 7:36.10. Ia zazpi minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari.



Gurutze Frades, Cozumelgo helmugan. **GURUTZE FRADES**

Durangoko Kulturalak etxeko bolada onari eutsi gura dio

Sailkapenean dituen hamahiru puntuetatik hamar Tabiran eskuratu ditu. Zapatuan Anaitasuna izango du aurkari



Kulturalaren hamaikakoa Baskoniaren kontra jokaturiko partiduan. **LUIS ITURRIOZ**

FUTBOLA • J.D.

Durangoko Kulturala sendo dabil etxean. Tabiran jokaturiko bost partiduetatik, Barakaldok baino ez ditu hiru puntuak eraman Tabiratik. Gainerako partiduetan, hiru garaipen eta berdinketa bat eskuratu ditu. Azpimarratzekoa da Vitoria taldearen aurkako garaipena (2-1). Talde gasteiztarra Hirugarren Mailako liderra da eta orain arte etxetik kanpora irabazi ez duen partidu bakarra Durangokoa da.

Zapatu arratsaldean, etxeko bolada onagaz jarraitzeko beste aukera bat dute durangarrek,

Azkoitiko Anaitasuna taldearen kontrako partiduan. Une honetan sailkapenaren erdian daude talde biak, hamahiruna puntugaz berdinduta. Irabazten duen taldeak

Etxean lorturiko garaipenen artean Vitoria liderraren kontrako azpimarratu daiteke

Hirugarren Mailako saikapenean postu batzuk gora egiteko aukera izan dezake.

Aitor Elordik Beñat Rezustagaz jokatu du Binakako Txapelketa Nagusia

PILOTA • J.D.

Pilota enpresek Binakako Txapelketa Nagusian parte hartuko duten bikoteak jakinarazi dituzte gaur. Zerrenda horretan dago Aitor Elordi, iazko txapelduna. Jose Javier Zabaletagaz batera jantzi zuen txapela. Aurtengo txapelketa Beñat Rezustagaz jokatu du.

Txapelketako lehenengo partidua azaroaren 30ean jokatuko dute, Eibarko Astelenan, Elezkano II-Martija bikotearen

Abenduaren 3an Mallabian jokatuko dute, Ezkurdia-Tolosa bikotearen kontra

aurka. Bigarren partidua etxean jokatuko du Elordik, Mallabian. Abenduaren 3an izango da, Ezkurdia-Tolosa bikotearen kontra.

Bestalde, orain aste bi prentsaurrekoa eman zuten Zornotzan, Binakako Txapelketako lau jaialdi han izango zirela iragartzeko. Bada, abenduaren 1eko bikoteak erabakita daude: Jakak eta Mariezkurrenak Peña II.aren eta Albisuren kontra jokatuko dute.

Jokaldia

Elikadura kirolean

Askotan dena dakigulakoan egoten gara eta momentuko modei itsu-itsuan jaramon egiten diegu. Gaur egun kirolari askok mota askotako irabiatuak, barritak eta pilulak hartzen dituzte. Askok, gainera, nutrizionista baten argibiderik gabe. Uste dute kirola egiteagatik bakarrik gauza horiek hartzeak mesede egiten diela, ze ondorio izan ditzaketen jakin gabe. Baina inor gutxik usteko du ura txarra dela. Ura edan gabe entrenatuko ginateteke?

Baina bada garai bat kirolari askok ura edan gabe entrenatzen zirena. Entrenatu bakarrik ez, bizi ere bai.

1881. urtean jaio zen Jose Aranburu Aramendi 'Keixeta'. 1920ko hamarkadako aizkolaririk onenetakoa izan zen eta adibide moduan jarriko dizuet 1924.



Karmeles Gisasola
Zenikazelaia
Herri kirolak

Kirolari askok mota askotako irabiatuak, barritak... hartzen dituzte. Askok nutrizionista baten argibiderik gabe.

Kontziente izan zer hartzen ari zaren eta kontuan izan profesionalen lanak asko laguntzen duela

urteko bere dieta, berak kontatua: "Goizeko zazpietan jaiki, txokolata gosalduta bi orduz mendira. 9:00etan, hamarretakoa: baratxuri zopa bi arrautza-gorringorekin, 300 gramoko txuleta eta lau gorringo azukrearekin. 12:00etan, bazkaria: zopa, oilo

erdia, 500 gramoko txuleta, lau arrautza eta fruta. 16:00etan merienda, hamarretakoaren berdina. 19:30etan afora, bazkariaren berdina".

Dieta hau irakurri ostean, bada harritu gabe geratu denik? Sasoi hartan horixe zen kirolari baten egunerokoa, eta ez zuten uste dieta hori gaizki zegoenik. Gaur egun, ordea, ezinezkotzat joko genuke.

Denborak aurrera egin ahala, jakintza gehiago dago, gauza berri gehiago eta profesional gehiago. Pertsona barentzat ona dena, beste barentzat kaltegarria izan daiteke. Baina horretarako daude profesionalak eta horregatik egin behar dira proba ezberdinak, bakoitzari ondo egiten diona zer den jakiteko.

Laburbilduz, kontziente izan zer hartzen ari zaren eta kontuan izan profesionalen lanak asko laguntzen duela.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
3 logela, 2 komun, sukalde jantzia eta egongela terrazarekin. Trastelekua eta garaje handia.
250.000 €



IURRETA
60 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Bizitzen sartzeko moduan.
155.000€ C.E.E= G



DURANGO
131 m². Eguzkitsua. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea terrazarekin. Garaje itxia eta ganbara.
310.000 €



IURRETA
117 m². 4 logela eta 2 komun. 150 m²-ko terraza. Trastelekua eta garajea aukeran.
220.000 € C.E.E= E



ABADIÑO
94 m². 2 logela eta 2 komun. 150 m²-ko terraza. Trastelekua eta garajea aukeran.
259.000 € C.E.E= E



MIKELDI
85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza.
226.000€ C.E.E=E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatze. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeitxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politikak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 5 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
60 m²
2 logela
MUSIKO ALTUNA: Egongela-sukaldea jantzia, 2 logela, komuna eta eskegitokia. Etxe osoak kanpora ematen du, hego-mendebaldea. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak, erdigunetik gertu. 2022 urtean berriztatua. 4. solairua igogailurik barik.
160.000 € C.E.E: F



DURANGO
68,80 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Beheko solairua (33,73 m²). Egongela handia, sukalde jantzia eta balkoia. Lehenengo solairua (25,07 m²), 2 logela, komuna eta balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Oso argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Ganbara eta garajea.
275.000 € C.E.E: D



DURANGO
80,30 m²
3 logela
ASTEPE AUZOA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5 m²-ko trastelekua eta 10,80 m²-ko garajea. Hobekuntzak behar ditu.
219.000 € C.E.E: F



DURANGO
86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2012. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoa) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. 22,4 m²-ko garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.
315.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreintatzeko.
280.900 €-tik aurrera



ABADIÑO
318 m²
GAZTELUA AUZOA: Baserria. Beheko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotetokia, 78 m² erabilgarri dituena. 15.317 m²-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatze. Ingurune berdea eta lasaia, Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura.
440.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **LEHEN 300.000€ ORAIN 280.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ
MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **280.000 €**

//GARAI
MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA
DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA
ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

//OTXANDIO
ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR
BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO
Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI
Informazio gehiago bulegoan.

//ETXEBIZITZAK ALOKAGAI
Informazio gehiago bulegoan.

Botikak

BARIKUA, 24 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 25 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 26 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 27 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 28 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 29 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 30 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Garazi (956. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozaturango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturango



Gaur, azaroak 24, Matienako banatzailerik onenak, **Yosu Echevarriak**, urteak egiten ditu. Zorionak, makina!



Zorionak, **Urkotxo**! Jarraitu hain alai eta xeble izaten! Disfrutatu egune familia eta lagunakaz! Askok gure zaitugu.



Zorionak, **Aner**! Oso ondo pasa zure egunien. Muxu potolo bat danon partez.



Zorionak, aita santu. Belarrietara iritsi zaigu! Urtebetzea ospatzeko, jaingoarekin zeneukan konpromisua alde batera utzi duzu, emakume batekin ezkontzeko. Gora zu, pekatulari. Mojen komentuan zure falta igarriko dugu.



Zorionak, **Ametz**! 8 urte azaroaren 25ien. Hiri geldi egoteko esatituek dok eta segidu baztarrak nahasten eta Kiñu zaintzen. Hi haz hi tipue!



Gure etxeko sorgintxuari zorionak eta urte on bat izan dezazula zure familiarean partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 7° / 13° ☁

ASTELEHENA ↓ 9° / 14° ☁

EGUAZTENA ↓ 7° / 13° ☁

DOMEKA ↓ 6° / 15° ☁

MARTITZENA ↓ 9° / 12° ☁

EGUENA ↓ 10° / 16° ☁



Ez baduzu hanka sartu nahi,
sartu zure iragarkia
IragarkiLaburrak.eus
atarian



Hemen
eta online

"Gustuko liburua topatuz gero, ziur piztuko dela zaletasuna"

Azaroan 15 urte bete dira Arteka liburu dendak atea zabaltu zituela, eta hamarkada bat Maialen Elorzak hartu zuela; martxan zegoen proiektua bere egitea izan du erronka



Maialen Elorza Retolaza

Arte liburu-denda ELGETA | 1985

DURANGO • AITZIBER BASAURI
Interesatzen zaizkion esparruak jorratzeko espazioa sortu gura izan du Maialen Elorzak, ilustrazioa eta sormena bultzatzen dituena. Liburu denda independentea izatea erronka handia dela aitortu du, baina, dioenez, askatasuna ematen dio gustuko liburuaren aukeraketa egiteko. "Horixe dut gustukoena", argitu du. Oso eskertuta dago urte hauetan herritarrek emandako konfiantzagaitik eta babesagaitik, eta bide beretik jarraitzea du etorkizuneko erronka.

Zelakoa izan da urte hauetako guztietako ibilbidea?

Horrelako proiektu bat duenak badaki bidea ez dela beti erraza, ba-

tzuetan gazia eta besteetan gozoa izaten dela. Lanbidea denboraren poderioz ikasiz joan naiz eta bide honetan hainbat krisi eta pandemia pasa dugu; beraz, ekintzaile legez, momentu desberdin asko eta emozioz beteak bizi izan ditut. Ogibide hau nahiko idealizatuta dagoela iruditzen zait eta, askotan, atzean dagoen lan mordoa ez dela ikusten; baina, era berean, xarma berezia du. Horregaitik, pasioz bizitako bidea da nirea.

Zelan sortu zitzaizun zuri irakurzaletasuna?

Ilustrazioa gustatu zait betidanik; baita edizio edo formatu berezidun liburuak ere. Irakurtzeko modu asko dagoela uste dut. Berbek diote-

Irakurtzeko modu asko dagoela uste dut; berbek diotenaz gainera, ilustrazioek kontaktzen dutenak bereziki erakartzen nau

naz gainera, ilustrazioek kontaktzen dutenak bereziki erakartzen nau. **Non dago irakurzaletasuna sustatzeko gakoa?**

Ez dago formula magikorik. Txikitatik etxean, eskolan, liburutegian, eta nagusitan irakurle taldetan, adibidez, egiten den lana beharrezkoa dela uste dut. Elkarlan

horretan egon daiteke gakoa. Baita irakurleei aukera desberdinak eskaintzean ere, ez dagoelako liburu bakar bat. Gustuko liburua topatuz gero, ziur piztuko dela irakurtzeko zaletasuna. Gainera, inoiz ere ez da berandu irakurzaletzeko. Bide horretan, funtsezkoa da liburu dendek, kultur eragile diren neurrian, herriko beste eragileekin (liburutegiak, museoak eta kulturaguneak...) hartu-eman izatea, sinergiak sortzea, elkar elikatze horrek ematen duena herritarrei eskaintzeko.

Inoiz ere ez da berandu irakurzaletzeko. Bide horretan, funtsezkoa da liburu dendek herriko beste eragileekin hartu-eman izatea, sinergiak sortzea

Bereziki harrapatu zaituen liburu bat?

Haur literatura oso gustuko dut, eta azken urteotan eleberri grafikoa ere bai, baina ezin naiz bakar batez geratu. Asko dira Artekan egin diren liburu aurkezpen eta ilustrazio erakusketak, eta denak ditut barruan gordeta. Idazleak edo ilustratzaileak, eta euren proiektuak, bertatik bertara ezagutzeak haien lana beste era batean ulertzea eta gozatzea dakar. Horrek sorturiko sententzia ederrekin geratzen naiz.

Sormen lanak erakusteko espazioa ere bada Arteka.

Bai, sormenerako espazio lez uleretzen dut. Arteagaz loturiko askotariko sormen espresioak batzea da helburua, eta eskualdeko zein Euskal Herriko artistei euren lanak erakusteko txoko bat eskaintzea, jendeari hauek gozatzeko aukera emanez, eta horrela saretzea bideratu eta bultzatuz. Argitaletxe txikiei lekua egiten ere ahalegintzen naiz.

Gomendatuko zenue libururen bat?

Asko gomendatuko nituzke. Azkenaldian irakurritakoen artean, ikaragarri gustatu zait *Por culpa de una flor* eleberri grafikoa, adibidez. Liburu denda txikietara joateko gonbita egingo nuke, eta bertan gomendioa eskatzea.

Lauhortza

Mertxe Mujika
Balanzategi
AEK



Harro Herri!

Tipi-tapa tipi-tapa, Korrika. Bador, bai, euskararen aldeko inizatiba hunkigarriena; Euskal Herri osoa aintzat hartuta diharduena. Harro herri leloa entzungo dugu datorren udaberrian hainbat txokotan. Hitz jokoak, endemas, bi kontzeptu batzen ditu: harrotasuna eta herritartasuna. Uste dut aurreko edizioetan emandako parte-hartze masiboak argi uzten duela gure hizkuntzaz harro gaudela, eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula; herri euskalduna dugula helburu.

Bai, harro sentiarazten gaituzte euskararen alde ematen diren indar erakustaldiek. Oraindik ere oso gogoan dut azaroaren 4an Bilbon bizi izandakoa: mila-lagun atera ginen kalera Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea lau haizeetara zabaltzera. Bai, harro gaude, baina ez konforme. Oraindik badago zer aldarrikatu. Egun ere nahitaezkoa da Euskal Herri osoan euskararen normalizazioa bizkortzea eta norbanakoen aktibazioan eragitea. Baina lan hori ezin da herritarren bizkar utzi.

Gure ahaleginarekin batera, instituzioek ardura garrantzitsua dute euskararen normalizazioan. Hortaz, beldur barik, eta harrotasunez, hizkuntza-politika ausartagoak martxan jartzeko unea heldu da. Eta guk, herritarrok, bide horretan eskua luzatuko diegu. Halaber, 23. Korrikak Iparraldeko Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko du.

Eredugarria da haien ikasketen une erabakigarrian, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko egiten duten hautua. Euskararen ekintzaile apartak dira! 2024ko martxoan berriro ere erakutsiko dugu bagarela nor, eta harro gaudela eraikitzen ari garen herriarekin.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasio

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE prezio bereziak